



## 'LANDA EREMUAREN DEFENTSAN' BAZTANDIK IRUÑERA

Erdiz Bizirik plataformak deituta, Erdizko meategi proiektuaren kontrako manifestazioa egingen dute apirilaren 22an Iruñean. 17:00etan Antoniutti Parketik abiatuko dira. Hori baino lehen, Euskal Herri osoan barna proiektuari buruzko solasaldiak egiten ari dira plataformakoak. / 35



## Parke eolikoen proiektuak ate joka

Madrilgo Zelena Renewable enpresak parke eolikoak egin nahi ditu Bortzirietan eta Malerrekan. / 19




**Doneztebeko Ostiz Etxearen 150. urteurrena hizpide Carlos Ostizekin** / 8



**'Euskararen udaberria, piztu Borborraldia' ate joka Bortzirietan** / 10



**Hauspolariek taldearen ibilbideari errepasoa Jaione Elizagoienekin** / 32



**Arantzako Mendi Lasterketari buruz Sonia Iturria eta Julen Oskozekin** / 43



# IREKIERA HANDIA

IBARDIN

ZOZKETA

# 1000€

Egin erosketa bat **BIOK SUPERMERKATU BERRIAN** eta zuzenean parte hartuko duzu gure zozketa berezian. Irabazi opari txekea!

Apirilaren  
30era arte

**APIRIL OSOAN ZEHAR**

Dastaketak asteburuetan — Opariak — Promozioak





NIRE TXANDA

EKHIÑE ZAPIAIN ARLEGI

## Minaren arrastoa

Lanean nintzen mezu hura ailegatu zenean. Nahiko argia zen azken ordukoa: «Sakabanaketari amaiera emanen dioten azken bortz euskal herriratzeak iragarri ditu Madrilek: amaitu da 1989. urtean euskal presoan aurka abiatu zen urruntze eta sakabanaketa politika, 34 urteren ondotik».

Neure buruari galdetu nion ea zer jakinen zuen 20 urteko neska batek ia bere bizitzaren bikoitza iraun duen fenomeno horri buruz. Baina, nahi baino gehiago nekien, akaso. Eta heriotzaren aitzinean dagoenak egin ohi duen bizitza-errepaso azkar horren gisara etorri zitzaizkidan irudiak: NANaren kopia, asteburuak, Lopidana, Mirentxin, «eroso zoaz?», Venta Baños, lokutorio bat, kristala, 40 minutu, «goraintziak denei», disimuluan bi malko, paketea, kamioiak, zortzi ordu eta erdi berriz, 1.628 km eta aiantzi aitzinetik idatzi beharreko mezua: «oraintxe ailegatu gara, ongi dago». Bukatu omen da hori guztia. Baina, uste dut oroitutako beharrea gaudela dispersioa bukatu baino gehiago, dispersioak akabatu duela, nekez ezabatuko baita errepedeetatik urteotako minaren arrastoa.

## «ERREPIDEETATIK NEKEZ EZABATUKO DA MINAREN ARRASTOA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

## Kajoian gordetako altxorra

Ez dira oraintzekoak Aitorren hizkuntz zaharra, Guk euskaraz zuk zergatik ez edo Euskal Herrian euskaraz ereserkiak, baina 'estatu espainoleko' Rozalén abeslaria etorri behar izan zaigu batzuk kajoian gordetako dugun altxorraz ohartarazteko. Denon artean putzu sakon eta ilunetik ur gazia ateratzeko baliagarria balitz bederen... Azken inkestak ikusita, nekez.

## NABARMENTZEKOAK



AINARA UNANUA  
IPAR MARTXAN  
TXAPELDUN



UXURI PORTU  
ESPAINIAKO TRIAL  
KOPAN LIDER

Martxoaren 19an Lodosan jokotutako Nafarroako ipar martxa txapelketa irabazi zuen emakumeen senior mailan Ttuku Ttuku Ipar Martxa taldeko kirolari gartzaindarrak.

Martxoaren 18an Kartagenan jokotutako lehen proban nagusitu ondotik, Espainiako trial kopako liderra de 9-12 urteko nesken artean txirindulari lesakarra.

## GIBELERA BEGIRA



2013-03-28 · TTIPI-TTAPA · 587 zk.

## Maxurrenea herriarentzat izateko eskea

Maxurrenea herrintzat ekimeneko kideek deituta, Leitzako hainbat herri eragilek prentsurrekoa egin zuten 2013ko martxoaren 14an, Maxurrenea herriari itzul diezaioten aldarrikatuz. Prentsurrean azaldu zuten, Maxurrenea eraikinaren jabe zen desagertutako Amazabal patronatuak eta garaiko herritarrek ongizatearen inguruan zituzte kezak «berdintsuak» ziren eta horregatik eskatzen zioten Nafarroako Gobernuari «eraikina herriari itzultzeko». 2002az geroztik etxea Espainiako Gobernuari arrendatzea erabaki zuen gobernuak, eta horrek Guardia Zibilaren kuartel bihurtu zuen Maxurrenea. Herritarrek kontratua atzera botatzeko eskatu zuten, eta egun berean egindako udalbatzak ere herriak egindako eskariarekin bat egin zuen.



erran.

TOKIKOM



### Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa  
Kontaktak bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eu

### Zuzendaria

Aitor Arotzena

### Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,  
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

### Publizitatea

Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
**Berriemaileak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,  
Irene Elizagoien, Maider Petrarena,

Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea,  
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,  
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,  
Maitane Maritorea, Arantxa  
Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione  
Aritzegi, Jaione Zabalo, Nerea  
Mortalena, Jean Louis Bessonart,  
Ganex Etxeberriagarai, Maialen  
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier  
Zulaika.

### Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

### Kudeatzailea

Joxemmanuel Irigoien

### Administrazioa

Amaia Goia

### Lege Gordailua

NA-1324/85

### ISSN

1578-4673

### Tirada

6.000 ale

### Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Batzan, Sara eta Senperoko  
udalak, Malerreko Zerbizuen  
Mankomunitatea.

### 2023ko harpidetza sariak

|                            |      |
|----------------------------|------|
| Batzan, Urdazubi           |      |
| eta Malerreka              | 45€  |
| Leitza                     | 36€  |
| Hego Euskal Herria         | 50€  |
| Ipar Euskal Herria, Europa | 100€ |
| Amerika eta Australia      | 152€ |



## KOLABORAZIOAK

LOREA FLORES COMPAINS

**Pobreneak pobreago eta aberatsenak aberatsago**

Krisiak bata bertzearen gibeletik metatzen ari gara: Covid-19aren osasun krisiari, Ukrainako gerrarenak segitu zion, eta ondotik, krisi energetikoa, materialen krisia edota azken aldiko inflazioa. Ezin dugu ahortzi aspalditik gainean dugun krisi klimatikoa ere. Horiek denak inaktu zuzena izaten ari dira gizartearengan eta mundu mailako ekonomian, eta dudarik gabe, desberdinkeria areagotuz doa horrekin denarekin. Pobreago direnak gero eta pobreago dira, eta bitartean aberatsenak etengabe aberasten ari dira.

Jendarte gero eta estutuago dago. Pertsona anitzen bizi baldintzak okertu egin dira, hilabete amaierara beraien soldatekin ailegatzea gero eta zailago eginik. Elikagaiak goiti, energia goiti, hipotekak goiti... Baina guretzako prezioak eta gastuak goiti doazen abiadura berdinean, goiti doaz bankuen eta enpresa handien onurak.

2023 hasieratik, iazko urtean enpresa eta banku handien irabaziak argitaratuz joan dira. Espainiar estatuko banku nagusiek inoiz baino irabazi handiagoak izan zituzten. Berdin gertatzen da enpresa energetiko nagusiek, Iberdrolak 2021ean baino % 12 gehiago irabazi zuen 2022an, Repsolk % 70 igo zituen bere irabaziak eta Naturgik % 36.

**«GURE GASTUAK GOITI DOAZ, ETA ENPRESA HANDIEN ONURAK ERE GOITI»**

Marxto erdialdean argitaratu dira Mercadonaren irabaziak, 718 milioi euro, aitzineko urtean baino % 5,6 gehiago.

Hartzen ditugun berrietan, badirudi, salneurriak goiti egitea ezin dela ekitin.

Egoera eta merkatuaren

ondorioz gertatzen den zerbait dela. Baina... Benetan gauzen balioa bada igotzen ari dena, krisi energetikoak, klimatikoak eta abarrek bulkatuta, nola liteke enpresak eta bankuek horrelako irabazietarako tarteak izatea? Ez al litzake justua enpresak beraiek beraien irabazi marjinak pixka bat estutu, horrela euren bezeroentzako «krisiaren» eragina murrizteko? Agian zientzia fikzioaz ari naiz. Izan ere, ezin dugu ahortzi, enpresa handi horiek, eta batez ere energetikoak, etengabe oztopoak paratzen dizkietela administrazioak egoera apaltzeko hartu nahi izan dituen neurri batzuei. Espainiar estatuak ezohiko irabaziez gain, banketxe eta enpresa energetikoei paratutako zerga errekurritu zuten Iberdrolak, Endesak eta EDPk.

Berriz ere agerian gelditzen da, hainbat arrazoiengatik eredu sozioekonomikoaren aldaketa bat behar dugula. Kapitalismoa mundu finitu batean, hazkunde mugagabea eta botere eta aberastasunaren metaketan oinarritzen da, eta gainera, diskriminazioa mota guztien eskutik doa, patriarkatua, arrazismoa, kolonialismoa, naturaren suntsiketa... Norbaitek erran zuen errazagoa zela munduaren amaiera imajinatzea kapitalismoaren amaiera baino. Baina uste dut ez dugula bertze erremediorik bertze mundu batzuk imajinatzen hasteko eta horietara ailegatzeko alternatibak eraikitzen joateko.



MIXEL GEREKA ZELAIA

**I... Ifrentzua**

Ifrentzua, Euskaltzaindiaren definizioaren arabera: «oihal, ehun, domina eta kideotan aurkia ez den aldea, atzeko aldea» da. Aurkia, berriz, alde nagusia, begien aurreko aldea.

Gure esaera zahar batek dio «aurki guztiak du bere ifrentzua», eta horren harira, nazioarteko elkartasunaren ifrentzuaz ibili naiz hausnarrean, gatazka eta gerrari aurre egiteko politikariek erakusten diguten txanponaren bi aldeak aztertuz. Ukraina eta Sahara.

Ukraina dugu elkartasunaren aurkia, medioek behin eta berririo, goiz eta gau, sumindura arte erakusten diguten aurreko aldea, alde nagusia. Errusiak, Putin buru, berea ez den ondoko Ukrainan bortxaz sartu eta inbaditu zuen orain dela urtebete pasa. Gerra! Gerra gure Europa sakrosantuan. Erantzuna bat-batekoa izan zen eta elkartasuna borborka, militarra zein zibila. Milioika euro tanke, bonba eta sofistikuturiko munizio bihurturik alde batetik eta oniritzia, errekonozimendua, errefuxiatuekiko begirunea, ate irekiak, ikusgarritasuna, espazioa, diskurtso politikoak, eskubideak eta demokrazia aho bete bestetik.

Saharar Herria dugu elkartasunaren ifrentzua, begiek ikusten ez duten atzeko aldea. Orain dela 48 urte Marokok berea ez zen Mendebaldeko Sahara inbaditu zuen, Hassan II.a

**«NAZIOARTEKO ELKARTASUNAK ERE BADITU AURKIA ETA IFRENTZUA»**

erregea buru zela. Ordura arte Espainiako 53. probintzia zen Mendebaleko Sahara. Ondoren, eta gaur egunera arte, ahanzturara kondenaturiko herrialde zatitu eta sakabanatua: Mendebaldeko Sahara

okupatuan batzuk, eta Aljeriako errefuxiatuen kanpamentuetan eta erbestean besteak. Ifrentzua izatea tokatu zaio. Honek ez du ez ikusgarritasunik, ez begirunerik. Ez dizkiegu gure etxeetako ateak eta gure herrietako etxe zein eskolak eskaini. Ez dute teleberrietan espaziorik. Ez dira janari edo arropa bilketa bereziak antolatuta. Ez diegu beren egoera erregulatzeko erraztasunik eskaini. Gerran daude berriro 2020ko azaroaz geroztik, baina isilarazitako gerra, ezkutukoa, ifrentzuko gatazka.

Hassan II.ak hasi zuena Mohamed VI.ak jarraitzen du, orain Pedro Sanchezen eskutik, honek eman baitio azken estokada Saharar Herriari, Mendebaldeko Saharako kudeaketaren legitimazioa eta oniritzia publikoki eskainiz Marokori, nazioarteko komunitatearen isiltasun eta konplizitatean babesturik.

Saharar Herriak badu esaera zahar bat: «lau hatzen tarteak da egia eta gezurraren arteko aldea», begitik belarrira dagoen tarteak, lau hatz. Ikusi duguna eta entzuten dugunaren tarteak.

Diskurtso ponpoxoak entzun, entzuten ditugu, batzuen eskubide, askatasun eta demokraziaren izenean. Ikusi, berriz, politikarien aurkia bakarrik ikusten dugu, ez ifrentzua.

Txanpon guztiek bi alde dituzte eta nazioarteko elkartasunak ere baditu bere aurkia eta ifrentzua. Nik txanpona noiz biratuko zain jarraituko dut.

Hala bedi! *Inshallah*.



## 11 GALDERA LABUR

XABIER GRAJIRENA ARIZTEGI LEGASAKO MOTORZALEA

# «Automobilismoan elkarri laguntzeko giro ona badugu»

**Nola definituko zenuke zeure burua?**

Urte aunitzetan ofizioz eta betitik afizioz kotxeen mundua gustuko duen mutil legasarra.

**Zein dira zure zaletasunak?**

Motorraren mundua gehienbat, baino lagun artean otordu eder bat egitea ere ez da plan txarra!

**Nondik heldu zaizu afizioa?**

Ttikitatik eman dit atentzia, attak ere gustuko du eta zer ikusi, hura ikasi.

**Eta noiz hasi zinen automobilismoan?**

Lehenbiziko slaloma 2018an egin nuen Donezteben. Ordura arte, Miranda de Ebroko zirkuituan ibiltzen ginen. Lagunarteko beroaldi batean hasi zen dena.

**Zein modalitatean parte hartu izan duzu?**

Bere garaian 4x4etan zerbait ibili ginen, baina gehiena slalomakegin ditut... momentuz!

**Erabilitako ibilgailuen artean zein duzu gustukoena?**

Egia erran, kotxe mordoxka pasatut ditut esku artetik... baina bat aukeratzekotan, BMW E30arekin gelditzen naiz. Buruko min aunitz eman dizkit baina aldi berean kotxe hagitz dibertigarria da.

**Doneztebeko IV. Slalomean parte hartu zenuen martxoaren 11n. Nolako esperientzia izan zen?**

Gustura ibili ginen, denborak ez zuen aunitzik lagundu baina lagun artean egun ederra pasatu genuen eta kotxea osorik elkarri genuen etxera... hori da inportanteena!



PELI AVM

**Eskualdean zaletasun haundia ikusten duzu?**

Azken urteotan bai, eta gustua ematen du hainbat modalitate antolatzeke orduan elkarri laguntzeko dagoen giro ona.

**Kotxearekin betetzea gustatuko litzaizukeen helburu edo ametsik?**

Egia erran helburu asko ditut, baina bat aukeratzekotan, BMW zaharrarekin Alemaniako Nürburgring zirkuitura

joatea izanen litzateke nire ametsik haundiena.

**Zein dira zure asmoak epe motzera?**

Momentuz, Nafarroako slalom txapelketa osoa egin nahiko nuke... kotxeak irauten badu!

**Eta epe luzera?**

Epe luzera, orain arte bezala gure zaletasun honekin lagun artean eta urte askoz disfrutatzen segitzea gustatuko litzaidake.



1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

**Albornozak**  
**Mantelak**  
**Kuxinak**  
**Edredoi nordikoak**  
**Ohe estalkiak**  
**Maindireak**  
**Toailak**  
**Edredoi-azal nordikoak**



## IRAKURLEAK MINTZO

### Heldu zaigu jada

**JOSU ARRIETA SARRATEA**

Zuretzako ziren goiz lasai amaigabeen bukaera, arratsetan lagunekin berandu arte gehiago ez gelditzea, laguntasuna hozteko beldurraren sorrera, eguzkia hartzen den bitarteko siesten akabera eta hausnartzeko eta norberak bere burua ezagutzeko hartzen zituen tartetxoaren bukaera... Aisiarako denboraren murrizketa azken finean. Zeure errutina sortu eta hartan sartzea. Baliteke haurtzarotik helduarorako pausoa izatea ere. Gutxi balitz, norbera egiatan dena erakusteko aukera ematen digun denbora murriztaileztat ere joko nuke. Hauek guztiak udako lehen lana hartu behar edo nahiaren ondorioak dira.

Behar hau izatearen arrazoi nagusizat diru beharra dakusat. Txikitatik gurasoei dirua eskatu izanaz nazkatzearen ondorio eta haiengandiko independentzia lortu nahi izanaren irtenbide bakarra lanean hastea da. Ideia ona dirudi: ordu batzuek lan egitearen truke soldata izanen duzu eta nahi duzunean gastatuko duzu. Hala ere, hori erratean ez da inoiz aipatzen beti ezagutu izan dugun uda zoriontsu eta aske hori ez dugula berriz ere bizituko, lanean emanen ditugun ordu horiek baitziren zorion eta askatasun haren iturri.

Halaber, bizimodu aldaketa hautatzearen arrazoiak bertzeta hamaika izan daitezkeela uste dut, baina horiek aunitzez ere pertsonalagoak direla dut uste. Hala ere, aisiarako denbora murrizketak dakartzan ondorioak berdinak dira noski.

Udak orain arte errutinatik alde egiteko eman digun aukeraren bukaera denoi helduko zaigu. Heldu zaigu jada. Ezin da harengandik ihes egin.

### Errege-erreginaren bisita

**XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ**

Bolada hartan, Juan Carlos Borboikoaren aita, Nafarroako Unibertsitatea izeneko klinikan egoten zen, gaixotasun larriren bat zela eta. Arrazoi hargatik, tarteka-marteka, Espainiako Erresumako errege-erreginak Iruñera joaten ziren, eri zegoena bisitatzera.

Antza denez, Noaingo aireporturaino joateko ez zuten arazo handirik, Madrilén hegazkin batean sartu ondoren, baina, zailtasuna, hain zuzen ere, Noaindik Nafarroako Unibertsitatea deritzan klinikaraino iristeko izaten zuten, nonbait, eta, begira ezazue nola jokatzan zuen jende handiusteko hark.

Garai hartan, Nafarroako Gurutze Gorriak erosi berria zuen auto moderno eta on bat, gurgil aulkiak ongi eta modu erosoan eramateko balio zuena. Egun askotan, ibilgailu hartan egiten zizkidaten Zizur Nagusiko eskola publikorainoko joan-etorriko zerbitzuak, lantokira iritsi ahal izateko, irakasle moduan. Baina, txitean-pitean zer gertatzen zen? Ba, gertatzen zena zen, Espainiako errege-erregina kalamidade eta lotsagabe haiek, Noaindik Iruñera joateko, bahitzen zutela Nafarroako Gurutze Gorriko beribil onena, eta, ni, lanera joateko, uzten ninduten beste ibilgailu zaharrago eta kaxkarrago batzuekin,

gurgil aulki motordunean gora eta behera ibiltzeko.

Are gehiago, Espainiako beren maiestate eta gorentasun irigarri haiei, nonbait, lotsagarria eta makurkeria iruditzen behar zitzaizkien Gurutze Gorriko autoan joatea, erakunde hartako logotipoekin, eta, ken zitzaten eskatzeko ausarkeria ere izan omen zuten, alegia, automobil hartan ibili nahi zuten, baina Gurutze Gorriko ibilgailua zela nabaritu gabe, eta, dena, dohainik, gainera. Hala eta guztiz ere, Nafarroako Gurutze Gorriak gogor egin, eta, beren gorentasunak ez omen zuten lortu nahi zutena, hau da, autoko logotipoak kentzea.

Mundu honetan, zeinen jendilaje lotsagabea egon daitekeen sinestea ere kostatu egiten da.

### Zuzenketa

**TTIPI-TTAPAKO ERREDAKZIOA**

827. aldizkariko *Irakurleak Mintzo* atalean *Utopia bide* izeneko iritzi artikulua bat argitaratu zen. Artikuluaren egilea, ordea, gaizki agertu zen. Mikel Sagastibeltza zen egilea. Barkatu eragozpenak.

### IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eu



948 63 54 58



EUSKARAREN TXOKOA

## Zaindu maite duzun hori...

### Kalko ustelak

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

**\*Topean ibili, topera ibili...** Zuzenak dira?

Bi moldeak gaztelaniaren kalkoak dira. Ez daude bilduak Euskaltzaindiaren Hiztegian, nahiz eta aunitz erabiltzen diren lagunarteko erregistroan. Nolanahi ere, ez dira egokiak erabilera jasorako.

Euskarak baditu ordain aproposak -jasorako edo lagunarterako-: dena(k) emanda ibili; gainezka/lepo/mukuru... egon, bete; leporaino/potroetaraino... egon; jo eta su, jo eta ke... ibili, ahalegin/eginahal betean...

### Hizki zopa

Bilatu hemen eskualdeko erreken izenak. Hamar dira:

**EZPELURA, EZKURRA, INFERNUKO ERREKA, GORRIZTARAN, URDIÑOLA, TXIMISTA, ONIN, ARRATA, TELLERI, UGARANA.**

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| T | N | A | G | S | S | M | U | M | F | O | P | P | K |
| X | F | G | G | M | J | G | U | Y | N | V | Q | W | K |
| I | A | R | R | A | T | A | W | K | B | R | U | F | P |
| M | X | C | D | Z | O | F | F | C | V | K | Y | F | J |
| I | U | R | D | I | R | O | L | A | H | L | E | L | M |
| S | U | X | L | M | N | U | G | A | R | A | N | A | D |
| T | T | F | N | I | A | E | O | N | I | N | N | T | P |
| A | N | B | G | O | R | R | I | Z | T | A | R | A | N |
| O | I | N | F | E | R | N | U | K | O | Q | G | W | Y |
| L | N | E | R | R | E | K | A | H | T | W | F | O | I |
| J | A | O | U | A | L | T | E | L | L | E | R | I | W |
| K | A | E | O | Y | E | Z | P | E | L | U | R | A | Z |
| I | N | C | M | E | E | Z | K | U | R | R | A | K | A |
| S | B | J | G | A | O | O | K | X | U | W | P | O | R |

Oharra:  
Aitzineko  
aldizkariko  
errana hauxe  
zen:  
Martxoko  
ortotsa,  
berrogei  
eguneko  
ekaitza.

### Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...



info@ttipi.eus



744 48 43 61



## Nola erran

**'\*Irabazi asmoz' ala 'irabazteko asmoz'?**

Euskaltzaindiak -tzeko asmoz, asmo(t)an, asmoarekin... erabiltzea gomendatzen du. Hortaz, honela behar luke:

**\*Partida irabazi asmoz atera ziren pilotariak**

**> Partida irabazteko asmoz atera ziren pilotariak.**

Honela dio Euskaltzaindiak:

**\*joan asmoz, \*egin asmoz, \*eztabaidatu asmoz** esapideen eta halakoen partez, joateko asmoz, egiteko asmoz, eztabaidatzeko asmoz (asmoan, asmoarekin...) eta kidekoak erabiltzea gomendatzen du Euskaltzaindiak.

**.\*Ama ikusi asmoz joan nintzen hara**

**> Ama ikusteko asmoz, asmoan, asmoarekin joan nintzen.**

Nolanahi ere, egin asmo duzuen lana edo etorri asmo dut moduko esapideak guztiz jatorrak dira. Aditzarekin perifrasiak osa dezaketen zenbait izenek —asmo, gura, gogo, nahi edo behar— badute horrela jokatzeko aukera: etorri asmo du, etorri gura du, etorri gogo du, etorri nahi du, etorri behar du.

## «Beharren arabera, belaunaldi bakoitzak bere garapena izan du»

CARLOS OSTIZ APEZTEGIA OSTIZ ETXEKO JABEA

Aurten 150 urte beteko ditu Doneztebeko Ostiz Etxeak. Gaur egun familiako laugarren belaunaldiaren esku dago negozioa eta ibilbidearen errepasoa egin du TTIPI-TTAPAREKIN

G. PIKABEA DONEZTEBE

Gutti dira belaunaldiz belaunaldi negozioaren lekukoa hartu eta hainbertze urtez horri kontzen diotenak. Aise erraten da, baina Doneztebeko Ostiz familiak 150 urte daramatza Ostiz Etxea dendan, urteak joan eta etorri, mostradorearen bertze aldetik bezeroen beharrei erantzunez. Hutsetik hasi zuten ibilbidea, Jose Ostiz eta Francisca Elizari bikotea, aukera berrien bila, Iruñetik Donezteben ailegatu zenean. Beraiek egindako oinetakoak salduz urratu zuten bidea, eta 150 urte berandago familiako laugarren belaunaldiaren esku dago; Carlos Ostiz Apeztegia eta Pilar Olalla Iraeta senar-emazteak dira jabeak. Lehengo eta oraingo kontuak oroitzuz, goizeko lanaldia akitu berritan, Carlosek urteotako errepasoa egin du.

**Aurten 150 urte beteko ditu Ostiz Etxeak. Urte aunitz dira...**

Bai... Igual sortu zenetik gehiago ere pasatu izanen dira, baina ez dugu dokumentatua. Familiako batzuek erraten dute gure birratautxik lehenagotik alde egin zuela herritik. Hala ere, urte hasieran anaia zaharrena hil zitzaigun, eta ez dugu ospatzeko alaitasunik izan. Zortzi anaia-arreba gara eta ni gelditu naiz dendan, baina modu batera edo bertze senide guztiak ibiliak gara dendan, baita semeak eta ilobak ere. Ilusio haundia genuen 150 urteak betetzeko, baina zoritxarrez, momentu txarrean tokatu da.

**Zure birratautxi izan zen negozioa ireki zuena. Nola hasi zen?**

Jose Ostiz gure birratautxi Al-dabakoa (Nafarroa) zen, Iruñetik hurbil dagoen herri batekoa. Bere arreba ezkondu zenean, hura gelditu zen etxean eta birratautxik bizimodua ateratzen behar izan zuen. Iruñera joan zen eta hantxe ikasi omen zuen zapatararen ofizioa. Francisca Elizari nire birramatxi ezagutu zuen eta berarekin ezkondukoan, aukera berrien bila hasi ziren, zapataririk ez zegoen toki bila. Halaxe ailegatu ziren Doneztebera, 1873 aldera, eta birratautxik hemen hasi zuen zapatari ibilbidea. Poliki-poliki, negozioa haziz joan zen.

**Zure atautxik eta amatxik hartu zuten lekukoa eta bortzegi botak ezagun egin zituzten.**

Bai, bortz senide ziren eta Anastasio nire atautxik eta Elena Iribarren amatxik hartu zuten ardura. Etxean beti kontatzen zuten bortzegi botak arrunt preziatuak zirela. Bigarren Mundu Gerran mugatik hurbil zeuden alemanak ere etorri omen ziren erostera. Ez zuten gomazko zolarik, larruzkoak ziren eta iltzeak zituzten, eta beredenboran, arrunt famatuak izan ziren. Garai hartan, hiru

langile izatera ailegatu ziren. Hortik aparte, atautxi musika-ria zen, txistulari haundia, eta Aita Donostiarekin harreman estua izan zuen. Garai haietan herrietako musikaren transmisioa ahoz egiten zen, eta atautxik ordura arte ahoz transmititutako doinuak paperera pasatu zituen, tartean, Doneztebeko Trapatan dantza. Juan Ignacio Ansorena Donostiako Txistularien Bandako zuzendaria lehenbiziko aldiz Doneztebera etorri zenean, ohore haundia zela erran zuen, musikari haundien herria zelako, eta atautxiren izena aipatu zuen. Doneztebeko Musika Bandako zuzendaria izan zen, eta bere zuzendaritzapean garai onak izan zituen bandak. 1918an Iruñeko banden lehiaketa irabazi zuen.

**Zure gurasoak negozioaren hiru-garren belaunaldia izan ziren...**

Bai. Jesus nire aita zapatari lanetan hasi zen. Ana M<sup>a</sup> ama Apeztegia burdindegiko alaba zen, ttiki-ttikitatik han lanean ibilitakoa, eta ezkondu zirenean Ostiz Etxean hasi ziren. Baina aitari Nafarroako Kutxan lan egiteko aukera sortu zitzaionean, negozioaren ardura amak hartu zuen eta garai hartan izan

zituen dendak aldaketa gehien. Oinetakoak egiteari utzi eta fabrikatutako oinetakoak saltzera pasatu ziren, eta horrekin batera, tabakoa saltzeko lizentzia eskatu eta estanko bihurtu zen. Dibertsifikazio garaia etorri zen eta oinetako denda, estankoa, paper denda eta liburu denda bihurtu zen. Herriko denda zen, itxia izanagatik, tinbrea jo eta atea irekitzen zuten. Belaunaldi bakoitzak bere garapena izan du, garaian garaiko beharren arabera.

**Eta zuk laugarren belaunaldiaren lekukoa hartu zenuen. Zergatik?**

Zuzenbide ikasketak egin nituen, baina ezkontzea erabaki genuenean, dendan gelditzea erabaki nuen. Ordurako amak langile bat hartua zuen, aita gaixotua baitzen eta arreba behar baitzuen. Ni negozioan lanean hasi nintzenean langile horrekin eta amarekin hasi nintzen. 30 bat urte izanen ditut Ostiz Etxean lanean eta gaur egun emaztea eta biok arduratzen gara. Amak, berriz, posible izan zuen arte segitu zuen.

**Aldaketak izan dituzue 30 urteotan?**

Batez ere merkatua aldatu da. Lehen, dendan zegoena saltzen genuen, eta orain, momentuan bezeroak nahi duena ez baldin baduzu, ez duzu salduko. Bezeroak gauzak segidan nahi ditu, berehalakotasuna eskatzen du. Lehen, zerbait ez bagenuen amak eskatuko genuela erraten zuen, eta jendeak esperatzen zuen; orain ez. Horrekin batera, lan egiteko modua aldatu da. Lehen lasaia go aritzen ginen eta orain mugimendu gehiago izaten dugu. Bada bertze kontu bat: jendeak, orain, justukoa bakarrik erosten du herrian. Zerbait baldin baduzu, normalena lehenbizi herrian begiratu eta ez badago bertze toki batean erostea izanen litzateke, baina aunitzetan aldrebes izaten da; bertze tokietan begiratu eta ez badago etorren dira, eta gainera, batzuetan nahi dutena harrapatzen dute. Bertze batzuetan eskatzen dutena izan dezakezu, baina aukera guztiak

**«BEZEROEI AHALIK ETA HOBEKEIN ERANTZUTEN SAIATZEN GARA»**

**«GAUR EGUN BEZEROEK BEREHALAKOTASUNA NAHI DUTE»**





Carlos Ostiz eta Pilar Olalla dira gaur egun Ostiz Etxearen ardura daramatenak. Familiako laugarren belaunaldia dira. TTPI-TTAPA

ez. Biltegi ederra dugu, betea, baina dena ezin eduki.

#### **Garai zailak ezagutu dituzue?**

Nik ez, baina segur aski nire gurasoek ezagutuko zuten. Seme-alabei ikasketak ordaindu zizkiguten... Hala ere, ez ziren dendatik bakarrik bizi, aitzak bankuan lan egiten zuen. Gure kasuan emaztea eta biok dendatik bizi gara eta konplikatuagoa da. Dendan gutti edo aunitz saldu, kanpoko soldata izatea babes haundia da.

#### **Zein da 150 urte irauteko sekretua?**

Umiltasunez eta konstantziarekin lan egitea eta bezeroen beharrei ahalik eta hobekien erantzutea. Nire gurasoek bezero guztiak ongi eta berdin tratatu behar direla erakutsi zidaten, ez direla desberdindu behar. Tratu atsegina eta hurbilekoa ematen saiatzen gara. Eskualdearen zerbitzura egotea izan da beti nire leloa.

#### **Lanordu aunitz eskatzen ditu?**

Bai, ordu aunitz sartzen ditugu. Batzuetan ez gara ailegatzten, baina ahal duguna egiten dugu.

Familia izatean gure langileek lana uzten zuten, eta denborarekin, gure haurrak koskortu zirenean, emaztea eta biokahal genuena egitea erabaki genuen. Gaur egun, denda astelehenetik igandera irekitzen dugu. Larunbat arratsaldetan itxi eta igande goizetan irekitzen hasi ginen eta bizi kalitatea hobetu zaigu. Lehen, igandetan denda ireki ez arren, prentsa banatzen ibiltze nintzen eta orain banaketa utzita, dendasaltzen dugu. **Hainbertze urtez anekdotak ere izanen dituzue...**

Anekdotak aunitz, baina orain momentuan burura bakarria heldu zait. Amak, aldi batean, saski batean oinetakoen pare solteak paratu zituen saltzeko. Eta bezero bat saskiaren inguruan bueltaka, begira eta begira zebilena ikusi zuen, behin eta berriz. Amak, azkenean, zer gertatzen zitzaion galdetu zion, eta bezeroakea hanka bakarreko oinetakoa saltzeko zuen galdetu zion. Amak ezetz, barronean zuela bertze pare.

#### **Zuzenbide ikasketak egin zenituen. Noizbait aritu zara lan horretan?**

Abokatu kolegiatua izaten segitzen dut. Lan batzuk egiten hasi nintzen, baina profesionalki norbait defendatzen banuen, bertze aldean zegoenak bere kontrariotzat hartzen ninduen. Dendan lan egiteko ezinezkoa zela konturatu nintzen eta uztea erabaki nuen. Gaur egun, lan bat edo bertze egiten dut, baina gutti, ez dut denborarik.

#### **150. urteurrena ospatzeko ospakizunik egingen duzue?**

Gurasoek beti erakutsi zidaten umilak eta diskretuak izaten. Uda aldera igual detaileren bat izanen dugu bezeroekin. Baina harrokeriarik eta ospakizunik gabe; ez da momentu ona.

#### **Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Beldurrez eta aldi berean ilusioz. Arrunt baikorra naiz, egun txar bat izan dezaket eta biharamunean ilusio haundiz jaikitzen naiz. Garai konplikatuak dira, baina 1922an nire amaxikatautxiri idatzitako karta batean erran zion bezala, garai haiek

ere konplikatuak ziren. Lagun batek, atautxiren musikako partituren artean, amaxikatautxiri idatzitako karta bat harpatu zuen, ez zutela deus saldu erranez. Ehun urte beranduago berdintsu segitzen dugu. Zailtasunak garai guztietan daude, baina bolada hobea etorriko dela pentsatu behar duzu.

#### **Familiako bosgarren belaunaldirik izanen da?**

Zaila ikusten dut. Gure semeak kanpoan ikasten ari dira eta ez dute guk daramagun bizimodurik nahi: hainbertze ordu, oporrik gabe... Ama gazteagoa zenean, igual gehiago joaten ginen oporretan, baina gehienez hiruzpalau egunetarako. Hamabortz eguneko oporrak ezkondu ginenean hartuko nituen, eta geroztik 25 urte pasatu dira. Horrela hazia naiz, bizitzeko modu bat da. Betieskualdearen zerbitzura egoten saiatu gara, eta aunitzetan guretzat onurarik izan ez arren, zerbitzua ematen saiatzen gara. Horrela interpretatzen dut negozioa.

## Bortzirietan euskararen udaberria pizteko

Bor-bor Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimenduak Borborraldia ekintza zikloa antolatu du apirilaren 19tik maiatzaren 6ra 'Euskararen udaberria, piztu Borborraldia' lelopean. Helburua bertzeak bertze mugimendua ezagutaraztea eta herritarrek euskararen inguruan biltzea da

### A. LARRETXEAK LESAKA

Orain artean su goxoan landu dute euskararen eltzzea Bortzirietan, eta udaberriarekin bat loratu, eta borborka paratuko dute. Bor-bor Euskaltzaleen Mugimenduak ekintza ziklo bat eginen du apirilaren 19an hasi eta maiatzaren 6ra bitarte eskualdeko bortz herrietan, *euskararen udaberria, piztu Borborraldia* izenpean. Eskualdeko euskaltzaleak biltzeko eta Bor-borren lan moldea probatzeko abiapuntu bat izatea nahi dute ekintza zikloa, baita hizkuntzaren auziari modu kolektiboan erantzuteko aukerak zabaltzeko ere.

Borborraldia egin aitzinetik ordea, urtebete baino gehiagoko bidea egina du dagoe-neko euskararen aldeko Bortzirietako mugimenduak. «2021eko udaberrian Bortzirietako Euskara Mankomunitateak egindako gogoeta prozesuan du abiapuntua», azaldu du Leire Errandonea Bor-borreko kideak. «30 urtez edo Euskara Batzordeetan antolatu izan da Bortzirietako Euskalgintza Soziala, nahiz eta eredu horrek hagitz ongi funtzionatu eta lorpen aunitz izan, ikusi zen bazela garaia berritzeko eta errelebo bat izateko».

Gogoeta prozesuaren ondotik, egitura berri bat sortzeko talde eragile bat sortu zuten, eta ia urtebeteko lanaren ondotik, gogoeta prozesuan ateratako ideiak oinarri gisa hartuta txosten bat aurkeztu zuten iazko udaberrian «Bigarren mugarrria izan zen

hori. Batzar gisako bat egin genuen herri guztietako euskaltzaleekin, txostena onartzeko eta ekarpenak biltzeko», kontatu du Errandoneak. Ondotik, uztailaren 2an, Lesakan egin zuten aurkezpen ekitaldi publikoa.

Errandonearekin batera, Aitor Iratzoki da mugimenduaren sorreran hasieratik buru belarri aritu den bertze herritarretako bat. Mugimenduaren sorrera prozesua «hagitz aberatsa» izan dela kontatu du, nahiz eta zailtasunak



Mentxu Peña eta Beñat Iratzoki taldearen sorrera manifestua irakurtzen.



Aurkezpen ekitaldian bortz herrietako dantzariak auresku berezia dantzatzen.

### «BADAGO GAUZAK ALDATZEKO GOGOAK»

LEIRE ERRANDONEA, BOR-BOR

### «BEGIRADA ZORROZTU BEHAR DUGU»

AITOR IRATZOKI, BOR-BOR

ere izan dituztela onartu duen: «Gogoetan gauza interesgarri aunitz bildu genituen, eta gero kosta zitzaigun mugimendu berriari forma emanen zion talde bat eratzea. Baina, azkenean 6-8 lagun elkartu ginen eta giro onean eta gustura aritu gara Bortzirietako euskalgintzari bertze forma bat emateko lanean».

Jendearen aldetik jasotako erantzuna ere «positiboa» izan da Iratzokiren ustez. Errandoneak ere nabaritu du hori, are, euskararen gaiak Bortzirietako herritarren artean «kezka» pizten duela dio: «Kezka hitzaren zentzu onean, euskararen gaiak badu pisu bat, eta badago gogo bat gauzak aldatzeko eta aitzinera segitzeko; eta hori, pozgarria da».

### Kontzientzia piztea

Eskualdeko ikuspegia izateko helburuarekin sortu da Bor-bor, eta helburua «euskararen gaian eragitea» da Errandoneak azaldu duenez; bai herritarren «kontzientzia piztuta» eta baita, herritarrek «ahaldunduta» ere: «Arnasgune edo udalerri euskaldun izaera horri kontzea nahi dugu eta aldi berean euskararen inguruan ikusten ditugun hutsuneak presente izatea». Bortzirietako bortz herriak udalerri euskaldunak direla azaldu du: «Horrek erran nahi du herritarren %70ak bederen badakiela euskaraz, baina bertze kontu bat da erabilerak». Hor, errealitate desberdinak daudela dio: «Puntu batean dago Arantza eta bertzean Bera». Horregatik, nahiz eta herriz herri «kezka komunak» izan, herri bakoitzak «bere arazoak» dituela dio. Bortzak udalerri euskaldunak izan arren, «erabilerarena denbora guztian landu behar den zerbait» da bere usteetan: «Ez dugu ahanzi behar jendeak euskara erabiltzeko baldintzak ere eman behar zaizkiola».

Bide beretik, «begirada zorroztu» behar dela nabarmen-





Leire Errandonea eta Aitor Iratzoki dira Bor-bor Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimenduko kideetako bi. TTPI-TTAPA

du du Iratzokik: «Badago zenbaitetan inpresioa Bortzirietan euskaraz bizi garela, euskaraz ikasi daitekeela, euskaraz mintzatzen ahal garela... baina bertze hainbat gauzatan ez gara ohartzen gaztelera sartu digutela. Normaltzat hartzen dugu liburu-zaina erdalduna izatea, pediaira erdalduna izatea, zinema gaztelaraz ikusi behar izatea... Beharbada konformismoa erori gara eta ez dugu tentsioa mantendu».

#### Lan ildoetan banatuta

Orain arte talde eragilea deitu diotena aritu da lanean, baina, Borborraldiari begira, gogoeta prozesuan nabarmendu ziren ildoak landuko dituzten bortz lan talde sortu dituzte: etorkinen harrera lantzen duena, gazteen arlokoa, hizkuntza ohituren ingurukoa, ikastetxeekin eta gurasoen sentiberatzearekin aritzen dena eta lan mundura begira ariko dena.

Lan talde horiek sortzeko, herriz herri bilerak irekiak egin zituzten urte hasieran, eta «erantzun ona» izan dutela dio Iratzokik: «Taldea bakoitza nahiko ongi osatu da, eta bere dinamika hartu du. Sentsazioa ona izan da, jende

dezente elkartu da eta leku desberdinetatik». Bide bereetik jo du Errandoneak ere: «Pozgarria da ikustea kezak adierazteaz gain badagoela gaitasuna zer egiten ahal dugun errateko».

Iratzokik azaldu duenez, talde bakoitza lanean hasi aitzinetik, lan ildo bakoitzak landu beharreko helburuak zehaztu zituzten, baina gero «autonomia utzi diete talde bakoitza gustura dagoen horretan aritzeko eta nahi duen lekutik jotzeko». Ekintza ziklorako talde bakoitzak bere lan ildoaren inguruko programa ondu du, eta talde eragilea, berriz, koordinazio lanetan aritu da.

Taldearen sorreran erabaki zuten lan ildoka lan egitea, eta Borborraldiaren antolaketa izan da hori probatzeko modua. Lan ildoetan lanean aritu izanak bi alde ditu Errandonearen ustez: «Eragiten hasi nahi dugu ildo horietan eta ikusi zer bide egiten ahal

den, eta bertze alde batetik modu bat ere bada Bor-borren funtzionatzeko moduak nola funtzionatzen duen ikusteko».

Bi taldekideek nabarmendu dute taldea «herritar denentzako irekia» dagoela, eta norbanako bakoitzak hartzen duen konpromisoa ere epe batekoa dela: «Momentuz jendea Bor-borraldirako bildu dugu, eta gerora segitzeko gogoia duenak izanen du aukera, baina inportantea iruditu zaigu oraingoz gauzak zehaztea» Kontatu duteenez, Bor-borraldiaren ondotik aztertuko dute lanerako dinamikak emandako emaitzak, eta herritarren beharren arabera moldatuko dituzte, baina aitzineratu dute asmoa behintzat badela lan ildoak mantentzea.

#### Euskara karrikan hiru astez

'Euskararen udaberria, piztu borborraldia' paratu diote izena apirilaren 19an hasiko den zikloari. Udaberriari egin

diote erreferentzia, udaberriarekin batera «piztu» nahi dutelako euskararen eltzea. «Zikloa izanen da taldea bera pizteko modu bat, kontzientziak piztekoa, euskara gaia ikusgarri egitekoa, eta udaberriarekin batera loratzekoa eta orain arte egindako lana bistara ekartzekoa», dio Errandoneak.

Apirilaren 19an, asteazkena hasiko da Borborraldia Beran. Bertan, Amelia Barquinek *Euskara harrera hizkuntza* formakuntza saioa egingen du 18:00etan Beralandeta aretoan. Apirilaren 22an izanen du segida zikloak, *Euskara lanean piztu* erakusketa ibiltariarekin. Erakusketa hori apirilaren 22an eta 23an Lesakan izanen da, 28an Arantzán, 29an Igantzín eta 30ean Etxalarren, eta maiatzaren 5ean eta 6an Beran.

Hezkuntzak hartuko dio segida ondotik. Apirilaren 24an hasi eta 28ra bitartean Bortzirietako ikastetxe denean gurasoen topaketak egingen dituzte. Hilaren 29an, gazteen txanda izanen da, Igantzín Bortzirietako Gazte Euskaltzaleen Topaketa egingen dute. Hezkuntzaren ordua izanen da gero: maiatzaren 2a eta 5a bitartean Gurasoentzako motibazio saioa izanen egingen dute UEMAren eskutik. Eguna eta tokia aitzine-rago zehaztuko dituzte. Borborraldia bukatzeko, aldiz, *Euskararen udaberria piztu* akabila besta egingen dute Beran.

Gogoeta prozesua abiatu zenetik ia bi urte pasa direnean, Bor-borrek egindako bidearen balantzea «positiboa» da taldeko bi kideen ustez: «Gure txikitasunean, baina oinarriak paratzen ari gara. Eta ikusten dugu hurbiltzen ari den jendea ilusioz hurbiltzen dela». Etorkizunera begira ere horixe dute asmoa, «lanean segitzea». Horretarako, herritar denak gonbidatu dituzte Borborraldian parte hartzera.

### «BOR-BORRALDIA TALDEA PIZTEKO MODU BAT DA»

LEIRE ERRANDONEA, BOR-BOR

### «TALDE BAKOITZAK BERE DINAMIKA HARTU DU»

AITOR IRATZOKI, BOR-BOR

## Bi desfibriladore gehiago paratu dituzte

Berlandeta kanpoaldean eta Labiaga Ikastolaren Altzateko egoitzako kanpoaldean paratu dituzte desfibriladoreak

### A. LARRETxea

Berako udalak bi desfibriladore berri jarri ditu herritarren eskura. Bat Berlandeta kanpoaldean jarri dute, Eztegarapasealekuan, eta bertzea, aldiz, Alzate karrikan Labiaga Ikastolako fatxadan. Toki Ona kiroldegian eta udaltzaingoaren autoan ere bada desfibriladore bana, eta beraz, lau dira Beran daudenak.

Norbait bihotza gelditzen zaionean desfibriladoreena da erantzunik eraginkor eta azkarrena. Horrelako kasuetan, gainera, garrantzitsua

da, lehenbailehen, 4-5 minututan, desfibrilazioa aplikatzea bihotza gelditu zaion pertsonari.

Bihotzeko arazoek, gaur egun, bat-bateko heriotzen portzentaje handi bat eragiten dute. Egoera horien aitzinean, desfibriladoreak erabiltzen badira, bihotzeko bat-bateko geldialdia izan duen pertsonak bizirik irauteko aukera handiagoak ditu, %90, hain zuzen.

Bihotz geldialdi baten aitzinean nola jokatu behar den ere zehaztu dute desfibriladoreak jarri dituzten gunean.



UTZITAKOAK

## Aste kulturala San Jose egoitzan

Martxoko hirugarren astean aste kulturala egin zuten San Jose egoitzan. Sagardotegira irteera, bertsolarien saioa, Bera Kantarikoen bisita, jota saioa, dantza emanaldia, talo tailerra, bingoa, musika eskolako kontzertua, txistulariak... Giro ederra izan zuten aste osoan.

## Munduko kenpo-kai txapelketan izanen dira Berako eskolako kirolariak

### TTIPI-TTAPA

Aspalditik errotua dagoen kirola da kenpo-kai arte martziala Beran, eta horren erakusgarri, herrian eginen dituzte Nafarroako kenpo-kai txapelketa eta klub artekoa. Maiatzaren 6an izanen dira lehiak Toki Ona kiroldegian,

09:30ean hasita. Txapelketak Beran eginen direla aprobe txatuz, bertze hainbat ekintza ere antolatu dituzte.

Lehiaketak bukatzean, kenpo-kai besta ospatuko dute. Zubiondo ostatuan afaria izanen dute eta afalondan Modesto Ordokik alaituko du

giroa. Helduen menuak 25 euroko prezioa du, eta haurrenak 13 euro. Kenpo kai bestaz gain, asteburu osoan teknifikazio ikastaroa eginen dute herrian.

### Kirolariak munduko txapelketan

Baztango eta Urdazubiko kenpo-kai eskolako ikasleen gisan, Berako eskolatik ere zenbait kirolari joanen dira

irailaren 27tik urriaren 1era Tunisian jokatuko den munduko kenpo-kai txapelketan. Zehazki, Beran entrenatzen duten Modesto Ordoki, Peru Newell, Iker Goikoetxea, Xabier de Kruz, Aimar Etxeberria, Ekai Etxeberria, Mikel Indaburu, Kattalin Pinillos eta Markel Sanchez izan dira lehiaketa horretan parte hartzeko aitzinetik hautatuak izan diren kirolariak.

**ANTZUZELAI S.L.**  
BERA - T. 948 63 13 17  
info@antzuzelai.com  
www.antzuzelai.com

HARGINTZA  
FATXADAK  
TXIMINIAK  
ZOLAK  
TAILLA ARTISTIKOAK  
OBRAK

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook  
www.facebook.com/ttppi.ttapa

**Ansona**

ostatu · jatetxea

T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 BERA

**Alberto RETEGI**

abokatua

948 630 763 · Alzate, 17 · BERA





IBAI ITURRIAK UTZITAKOA

## Agerra Mendi Taldea Xoldokogainera

Agerra Mendi Taldeak urteko hirugarren irteera egin zuen martxoaren 26an Xoldokogainera. Eguraldi ona izan zuten mendi bueltaxka egiteko, nahiz eta tontorretan haize fina eta hotza izan. Ondotik, Mendiko sagardotegian bazkaldu zuten. Antolatzaileen hitzetan «primeran» atera zen eguna.

## Literatura geraldia 21ean Joseba Sarrionandiarekin

Literatura geraldien zikloari segida emanez, apirilaren 21ean, 18:00etan, Joseba Sarrionandia idazlea izanen dugu herriko liburutegian. *Egoerak eta liburuak* izeneko hitzaldia emanen du Iurretako idazleak. Euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzea, herriarren euskarazko kultur kontsumoa indartzea, euskal liburugintza indartzea, liburutegi publikoen erabilera bultzatzea eta esperientzia literarioak konpartitzea da Literatura geraldia programaren helburua.

## 'Euskara harrera hizkuntza' tailerra apirilaren 19an

Bor-borraldiari irekiera emanez, Bor-bor euskaltzaleen mugimenduak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatuta, harrerari buruzko formazio-saioak egingen dira apirilaren 19an. Goizean, eragile instituzionalei eskainiko zaie, eta, arratsaldean eragile sozialei edota interesa duen edozeini. Beralandetan izanen da 18:00etatik 20:00etara, eta lehenagotik izena eman behar da. Amelia Barquin Mondragon Unibertsitateko Kultura arteko Hezkuntza irakasleak gidatuko ditu saioak.


**Manterola**  
Tekniko instalatzailea  
**ITURGINTZA · GASA  
KALEFAKZIOA**  
Zerbitzu anitzak &  
Gremioen koordinazioa  
**629 449 602**

Astrolabeotik  
ortzinalora:  
07:15etik  
aitzinerara  
**LABE ZAR**  
Larunbata  
eta igandea:  
08:00etatik  
aitzinerara  
948 631 076 • BERA

**Jauzena**  
Denda. 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jauzena.bera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean**  
Erreformak, etxe berriak  
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa  
eta dirulaguntzen gestioa



Oier Ariznabarretak zazpigarrenez irabazi zuen lasterketa iaz. UTZITAKOA

# Mendi Maratoi Erdia hilaren 16an egingen dute XVII. aldiz

Kategoria absolutuko lasterketaz gain, Gazte Trail eta Txiki Trail ere jokatuko dituzte heldu den igandean

### A. LARRETKEA

Apirilaren 16an berriz ere lasterkeriaz beteko da herria. Agerra Mendi Taldeak, Manttale Mendi Lasterketa Taldeak eta Gure Txokoa Elkartek XVII. aldiz antolatu dute Mendi Maratoi Erdia.

Bezperan hasiko dira ekitaldiak, Aritz Ganboaren *Bideak* dokumentalaren emanaldia-ekin. 19:00etan izanen da Kultur Etxean, eta dokumentala ikusteaz gain, Ganboarekin solasaldia ere izanen da. Sarrerak aitzinetik eros daitezke Agerrako Pikabea harategian zein 647 29 61 04 zenbakira whatsapp mezu bat bidalita. Egunean bertan ere erosteko aukera izanen da.

Biharamunean, 09:30ean hasiko da XVII. Mendi Maratoi Erdia. Horren aitzinetik, 08:00ak eta 09:00ak bitartean dortsalak hartzeko aukera izanen da Toki Ona kiroldegian. Lasterkarietaz gain, lasterketa ikusi nahi dutenentzako bi irteera ere izanen dira. 08:30ean aterako da lehena, eta Larhun mendira, lasterketako puntu altuenera joanen dira. Denera 14 kilometroko ibilbidea

izanen da. 09:00etan aterako da bigarrena, eta lehenik Usategietara joanen dira, eta handik Landagañetara eta 10 kilometroko itzulia izanen da. Ricardo Baroja eskola paretik aterako dira bi irteerak.

Aurten, Euskal Herriko Lineako Koparako puntuagarria izanen da lasterketa. Txapelketa hau Euskal Mendizale Federazioak eta Nafarroako Mendi eta Eskalada Kirolen Federazioak antolatu dute, herrialde guztietako kirolariek parte har dezaten eta Euskal Herriko hainbat lurraldetan zehar ibil daitezzen.

### Gazteentzako lasterketak

Haurrek eta gaztetxoek ere beren lasterketa izanen dute. Gazte Traila, 10,2 kilometro luzera eta 380 metroko desnibela duena, 2005ean eta 2006an jaiotako gazteentzat da. Txiki Trail, aldiz, 5,9 kilometroko luzera eta 242 metroko desnibela duena, haurrentzat da (2009an eta 2010ean jaiotakoak) eta kadeteak (2007an eta 2008an jaiotakoak). Lasterketa horiek 10:10ean aterako dira.



Sorginxulo kultur bilgune eta udal ordezkariak aurkezpenean. UTZITAKOA

## 'Hamar urte, hamaika dinamika' proiektua abian da

Harriondoa kultur etxearen hamargarren urteurrena ospatzeko antolatu du Sorginxulo kultur bilguneak, udalaren laguntzarekin

### AITOR AROTZENA

Harriondoa kulturetxeak lehen hamarkada beteko du aurten. Urtemuga hori abiapuntu hartuta, *Hamar urte Hamaika dinamika* proiektua martxan paratu du Sorginxulo Lesakako kultur bilguneak udalaren laguntzaz, urte osoan gauzatu dena.

Proiektuak bi begirada nagusi izanen ditu. Lehena espazio eszenikoei egindako keinua izanen da, batez ere Harriondoari, aurten hamar urte beteko dituelako. Antolatutako emanaldien zati garrantzitsua bertan izanen da,

baina herriko karriketan ere ez da jarduerarik faltako.

Bigarren begirada herriko kultura arloko talde eragileei zuzendua dago, hala nola: soinulari taldea, trikitixa taldea, txistulari taldea, dantzari taldea, bertso eskola, antzerki tailerra, abesbatzak, musika banda, erraldioen taldea, el-

### APIRILAREN 30EAN NEOMAK TALDEAK KONTZERTUA EMANEN DU

karteak, etab. Aspaldiko urteetan lanean ari dira, bakoitzak bere arloa sustatuz, bere bidea eginez. Hamaika dinamika beraz, Lesakako karrikak eta barrenak animatzen. Hau da Lesakari bizitza kulturala ematen diona egunerokoan, aniztasunaren islada, eta guztiak proiektu honen talde antolatzailearen parte dira.

Aipatutako bi begirada horiek osatzen dute *Hamar urte Hamaika dinamika* proiektua, hainbat emanaldiren bidez gauzatuko dena eta bakoitzak talde eragile baten dinamika errepresentatuko duena. Horrela, antzerki emanaldiak, bertso saio musika-tuak, abesbatzak, dantza taldeak, erraldioak, musika tresna desberdinen kontzertuak eta bertze sorpresa batzuk izanen ditugu ikusgai eta entzungai. Herriko eragileen eta talde profesionalen eskaintzak batera gozatu ahal izanen dira.

Martxoaren 26an hasi zen *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* antzerki lanarekin. Ondotik etorriko dira Neomak taldearen trikitixa kontzertua, Anonyme Popular bertso emanaldia, Kukai dantza taldearen *Hnuylila* emanaldia, merkatu ttikia eta azoka kulturala, akordeoi jaialdia, erraldioen 75. urteurren jaialdia, Nafarroako orfeoia, Baztan Bidasoko Musika Banda... Bertakoak eta bertara etorri nahi duen orok gozatzeko proiektua izan da dila.

## Xulubest eguna ekitaldiz gainezka antolatu dute apirilaren 22rako

### A. AROTZENA

Xulufriak Lesakako Sare Feministak antolatuta Xulubest eguna ospatuko dute apirilaren 22an eta besta eta aldarrikapena uztartzen dituen egitarau zabala prestatu dute horretarako. Larunbatean 10:00etan diana izanen da emakume txistulariekin. 11:30ean bisita gidatu feminista herrian barrena. 14:30ean bazkaria plazan (txartelak 15 euroren truke Arranon salgai hilaren 19ra arte). Ondotik, emakume sortzaileen mikro irekia eta autozaintza saskiaren zozketa. 18:00etan poteoa Goxo txarangarekin eta gauerditik aitzinera, eguna borobiltzeko Aduana Marrana DJaren eskutik musika Arranon.

## Etixeraino! bertso afaria Arranon apirilaren 15ean

Etxerak antolatuta *Etixeraino!* bertso afaria egingen dute apirilaren 15ean, larunbatean 21:00etan hasita Arrano elkartean. Nerea Ibarzabal eta Unai Iturriaga ariko dira kantari. Txartelak 20 eurotan eskura daitezke Arranon, apirilaren 13a arte.

**F. LANCHAS**  
Akutelladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

**MARITX**  
INGENIARITZA ELEKTRIKOA  
PROIEKTU ELEKTRIKOAK  
T. (0034) 636 617 450  
BOLETIN INDUSTRIA  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
Legia, 23 - BERA

**LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA**  
Txotx denboraldia irekia!  
Ortzegunetik igandera irekita,  
eguerditik aitzinera.  
Egin erreserba!!  
NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) - TEL. 948 63 72 12





Haur eta gazte ugari erabili dute pump track-a egunotan. A. AROTZENA

## 'Pump track-a' eta Zumarrako bidea estreinatu dituzte

Orbea enpresak 16.000 euroko dirulaguntza eman dio udalari Bizibide ekimena indartzen segitzeko

### A. AROTZENA

Bizibide ekimenarekin segituz, bi kirol instalazio estreinatu zituzten martxoaren 18an. Zumarra aldean landu duten jautsiera bide berri baten inaugurazioa egin zuten goizean. Arratsaldean, berriz, Eltzeta karrikako pump track-aren inaugurazio jendetsua egin zuten.

Bizibide ekimena poliki-poliki handitzen ari da, eta horren jakitun, Orbeak 16.000 euroko dirulaguntza eman dio udalari ekimen hau indartzen jarraitzeko. Diru hori, Zumarra aldeko bide berri hau sor-

tzeko eta bertze batzuk hobetzeko erabili du udalak. Lan hauek Basque MTB enpresarekin elkarlanean gauzatu dira. Bide honek, ia 2 kilometroko luzera eta 360 metroko desnibela du eta enduro bizikletetan arituak direnek gustura estreinatu dute.

Pump trackari dagokionez, bizikletaz gain, skate, patina edo patinetearekin erabiltzen ahal den instalazioa da. Pump track-a egitea 95.805 euroko kostua izan du eta hau ordaintzen laguntzeko 50.000 euroko dirulaguntza jaso du udalak Europatik.



AITOR AROTZENA

## Zubigainekoa Tantirudantza egunean

Hiru urte eta gero, Tantirumairu Euskal Folklore taldeak antolatutako Tantirudantza jaialdia ospatu zen martxoaren 18an. Oizartzungo Haurtzaro, Zumaiako Dantza Eskola eta Herrerako Herri Ametsa taldeko dantzariak etorri ziren eta Tantirumairukoek Zubigainekoa dantzatu zuten.



UTZITAKOA

## Julen Goia xakean garaile Iruñean

Martxoaren 18an eta 19an jokatu zen Iruñean Paz de Ziganda nazioarteko xake txapelketa. Zortzi urtez beheitiko kategorian garaile suertatu zen Julen Goia Mitxelena lesakarra, sei urterekin. Denera, hamabi urtez beheitiko 94 jokalariren artean hamabosgarren izan zen sailkapenean.



**943 64 17 10**  
**www.endanea.com**

Online denda

## GOZATU UDABERRIA

Sasoiko lore ederrenak zain dituzu zure txoko kutunenak kolorez janzteko.

- Sasoiko lore eta zuhaixkak.
- Lorezaintzarako osagarriak.
- Baratzetako landareak eta haziak.
- Altzariak eta dekorazioa.



## Administrari lanpostua bete nahi du udalak

Bertze aldetik, Herriko Ostata berriz ere ireki dute eta Turismo Bulegoko atea zabalduko dituzte Aste Santuan

### IRUNE ELIZAGOIEN

Administrari lanetan ibiltzeko lanpostu baten deialdia argitaratu zuen udalak martxoaren 16ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Lanpostua lanaldi osorako da eta lehiaketa-oposizio baten bitartez aukeratu da. Deialdian parte hartu eta eskabideak aurkeztu ahal izanen dira Udal Erregistro Orokorrean, baita haren egoitza elektronikoan ere.

### Turismo Bulegoa

Kultur Etxean dagoen turismo bulegoak atea zabalduko ditu

Aste Santuan. Apirilaren 6tik 10era, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara egonen da zabalik. Bisita gidatuak egiteko aukera izanen da eguero 13:00etan. Apirilaren 19tik 24ra Kultur Etxea itxita egonen da.

### Herriko Ostata berriz irekia

Martxoaren 24an ireki zituen atea berriz ere Herriko Ostata. Jende aunitz joan zen inaugurazio bestara eta plaza inguruak berriz ere bere ohiko giroa berreskuratu zuen. As-telehenetan itxita egonen da.

## 21 auto gidari Usategietako XIII. Igoeran

XIII. Usategietako igoera, monoplazetan Andoni Blas, kotxeetan Joseba Beola eta junior mailan Eneko Mitxelena izan ziren irabazle. Oier Iturria herritarrak ere lehen aldiz parte hartu zuen.



LANDAGAIN ESKOLA

## Eskolako ikasleak zuhaitz landatzen

Zuhaitzaren Eguna ospatu zuten martxoaren 16an Landagain eskolan. Axerilepora oinez joan, udal langilearen azalpenak aditu eta zuhaitzak landatu zituzten ikasle, irakasle eta gurasoek. Bertan bazkaldu eta eskolara itzuli ziren. Eskolak eskerrak eman dizkie familiei eta udalari.



ANA INDAURU

## Bortziria dantzan Etxalarren

Larraburua Elkartek antolatuta, Jeiki Hadi musika taldearekin muxikoak eta dantzak izan ziren Etxalarko frontoian martxoaren 18an. Bortzirietako jende andana elkartu zen larunbat horretan pare bat orduz etengabe dantzan aritzera.



**Guillermo LARRAÑAGA doktorea**  
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarna eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak



**Centro Médico Bera**  
San Esteban 17, Bera

**Telefona: 610 549 507**



**Arturo**  
arropa-denda  
etxeko osagarriak | lentzeria  
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

**TTPI-TTAPA SARE SOZIALETAN**



**facebook**  
[www.facebook.com/ttpti.ttapa](https://www.facebook.com/ttpti.ttapa)



**LIDERA**  
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

Iturrumubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)  
Tel. 722 662 478 | [lidera@hortzklínika.es](mailto:lidera@hortzklínika.es)  
@liderahortzklínika



**DentalQuality**  
Certificado de Calidad  
Certificación



## Lesakara mendi irteera antolatu du Biltokik hilaren 22an

Pagolleta eta Agiñan barna Lesakara joan eta Zantzonea jabetxean bazkalduko dute mendizaleek

### ANA ETA ITZIAR

Apirilaren 22an mendi irteera antolatu du Biltoki Elkarteak. Ibilbidea Igantzi-Pagolleta-Agiña Lesaka izanen da eta ondotik, indarberritzeko bazkaria Lesakako Zantzonea jabetxean izanen da.

Irteera 07:30ean izanen da Biltokitik eta izen ematea Elkartearen tabloian edota [igantzibiltoki@gmail.com](mailto:igantzibiltoki@gmail.com) helbide elektronikoan egin behar da. Bazkide denak 25 euro ordaindu beharko ditu eta bazkide ez denak berriz 28 euro.

### Berdintasun Plana

Azken hilabeteetan Bortzirietako III. Berdintasun Plana eraikitze lanean. aritu dira Hainbat herritarrek hartu dute parte prozesuan, beraien ekarpenak eginez Planaren hasierako bertsioa sortzeko. Azken saioa Igantzin egin zen apirilaren 1ean eta behin-behineko planaren aurkezpena egin zen. Kontrastea egin eta saio honetatik Berdintasun Planaren azken bertsioa aterako da, Bortzirietako udal eta mankomunitateen berdintasun politikak gidatuko dituen.

### Amatasunaz eta Erdiz Bizirik solasaldiak

Amatasunak feminismitik hiltzaldia egin zen martxoaren 17an, Berdintasun Batzordeak antolatuta. Martxoaren 24an, berriz, Erdiz Bizirik plataformakoak izan ziren, orain arteko eta egungo egoera azaldua eta hilaren 22an Iruñean egin den manifara gonbidatuz.

### Igantzi eta Lesakako Arkupeak elkartekoena besta

[Zuzenketa] Azken aldizkarian Baratzondo elkartean egin zen bestaren harira, Elkartek berak adierazi digunez, besta hau Lesaka eta Igantziko Arkupeak elkarteko kideek antolatu zuen eta ez Igantziko Jubilatuen Elkartek, idatzi genuen gisan. Barkamenak.



UTZITAKO ARGAZKIA

### UEMAko 100 herri baino gehiagotik bat

Martxoaren 25an Azpeitian ospatu zen UEMAK antolatutako batzarra. Herriko zenbait ordezkari izan ziren, Igantzi UEMAn sartu zenean alkate zen Lurdes Ibarluzea, horretan lanean aritu ziren Euskara Batzordeko hiru ordezkari (Patri, Jaione eta Idoia) eta egun zinegotzi den Xabier Sarasola.

### Canabal eta Aldabe Errege kopako txapeldun

Logroñoako Adarragan jokatu zen Errege Kopa, Espainiako txapelketako lau bikote onenen artean. Oihan Canabal Etxartek eta Joseba Aldabe Etxeberria herritarrek Murua-Garmendiari irabazi zioten ortziralean (10-6, 10-2) eta De la Fuente-Bergerari finalean (10-5, 10-2).



UTZITAKO ARGAZKIA

**instalazioak IGOGAILUAK**

**PROFESIONALAK KALITATE-BERMEA IRISGARRITASUNA MANTENTZE LANAK**

**1 KANPOKO IGOGAILUAK**  
Kanpoko fatxadak gutxi integratuak, portal barutik sarbidea, inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

**2 BARRUKO IGOGAILUAK**  
Eskalerrak tartan integratuak. Sarbidea portal barutik, inongo estropak gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpuzkilariek daudenentzako egokitasuna.

**3 IRISGARRITASUNA**  
Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpuzkilariek daudenentzako portalen sarbidea egokitzten dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.

**EZ ZAITEZTE KEZKATU!** Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

**Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999**  
[suteia@suteiazaldain.com](mailto:suteia@suteiazaldain.com)

## '10 watt bakarrik' Arantzako irratia- ren arrastoan

Joan den astean, Punto de Vista festibalean aurkeztu zuten Oier Fuentes beratarren '10 watt bakarrik' dokumentala

### NEREA ALZURI

Euskarazko irratigintzan aitzindarietako bat izan zen Arantzako irratia. Azken urteotan haren arrastoen gibeletik ibili da Oier Fuentes zinegile beratarra eta *10 watt bakarrik* proiektua aurkeztu zuen joan den astean Iruñeko Punto de Vista festiba-

lean. Lanean, Arantzak izan zen euskarazko irratiklandestinoaren aztarnak ageri dira. 60ko hamarkadara arte egon zen martxan, eta *offen* bere historia kontatzen digun gizonak muntatu zuen. Nonbait, martxan zeuden hamabortz irratietatik bereak bakarrik iraun zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Sagardotegira ateraldia

Joan den martxoaren 25ean, Egiluze sagardotegira autobusez ateraldia antolatu zuten Ekaitza Elkartek eta Gazte Asanbladak, eta hantxe izan zen argazkiko kuadrilla. Bazkaldu eta giro ederrean goizaldera arte luzatu zuten besta.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
tabernabera@gmail.com  
www.tabernaedariak.eus



Martxoaren 26an lehenbiziko batzarra egin zuten herritarrek gorapean.

## Parke eolikoaren proiektuak ezinegon sortu du herritarren artean

### N. ALZURI

Madrilgo enpresa batek Arantzako, Etxalarko, Igantziko eta Sunbillako lurretan parke eoliko bat sortzeko duen asmoak kezka sortu du herritarren artean eta horren harira, biltzen hasiak dira. Martxoaren 26an egin zuten lehenbiziko batzarra, eta apirilaren 2an bigarrena. Badi-  
ra enpresa lanean ari dela era-  
kusten duten seinaleak eta gaia hurbiletik segitu nahi dute.

Udala ere ate joka hasi da eta «prentsa bidez jakin duen proiektuari buruzko informazio guztia» eskatu zuen Nafarroako Gobernu ingurumen eta in-

dustria departamentuetan. Joan den astean hartu zuen Industria Antolamenduaren, Azpiegitura Energetikoen eta Meatzeen Zerbitzuko Zuzendariak emandako erantzuna, ez dutela parke eolikoari buruzko baimen eskaerarik edo dokumentazio teknikorik hartu erranez, baina 2022ko azaroan Zelena Renovable S.L. U. enpresak bi berme ekonomiko jarri zituela baieztatuz. Horietako bat Arantzako lurretan egin nahi duten Azkua proiektuari dagokio. Berme hori nahitaezkoa da energia sarera konektatzeko baimena lortzeko. Xehetasunak 19. orrialdean.




ESKOLAK UTZITAKO ARGAZKIA

## Zuhaitz landaketa eguna eskolan

Martxoaren 15ean, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleak *Bulatxiki* aldera joan eta bertako 70 haritz landatu zituzten. Haur Hezkuntzakoak, berriz, udazkenean gelan paratutako gaztainen hazietatik landaretxoak jarioak zirenez, Emakumeen Baratzera joan eta han landatu zituzten.





Irakurri ingurua Malerrekan.



Azkua ingurua Bortzirietan.

## Irakurri eta Azkua parke eolikoaren proiektuen izenak

Bortzirietan eta Malerrekan parke eolikoak egin nahi ditu Madrilgo enpresa batek

### TTIPI-TTAPA

«Madrilgo Zelena Renewable S.L.U. enpresak Bortzirietan eta Malerrekan biodibertsitatea suntsitzen duten makroproiektu eolikoak paratzeko asmoa du». Halaxe aitxindu zuen Sustrai Erakuntza fundazioak martxoaren 16an. Enpresa mugitzen ari dela adierazi zuen, eta ondoko egunetan energia sare elektrikora konektatzeko baimenak lortu zuela baieztatu zuen.

Kokapen zehatzik ezagutarazi ez badute ere, Nafarroako Gobernuak Industria Antolamenduari, Azpiegitura Energetikoen eta Meatzeen Zerbi-

tzuko Zuzendariak Arantzako Udaleriaren erantzunean ageri denez, Irakurri eta Azkua dira parke eolikoaren proiektuen izenak. Irakurri -Ezurrako mendibaten izena da-, Ezkurra, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaiengo lurretan egin nahi dute eta Azkua -Etxalar, Igantzi, Sunbilla eta Arantzako lurretan.

Gobernuaren erantzunean ageri denez, «ez dute Arantzaren egin nahi duten parke eolikoari buruzko baimen eskaerarik edo dokumentazio teknikorik hartu, baina 2022ko azaroan Zelena Renewable enpresak bi

berme ekonomiko jarri zituen». Bermeetako bat Irakurri proiektuari dagokio eta bertzea Azkua proiektuari. Berme horiek nahitaezkoak dira energia sarera konektatzeko baimena izateko.

Proiektu bakoitza 50 megawattetako izanen litzatekeela ondorioztatzen ahal da erantzunean, baita energia Bidasoko azpiestazio elektrikora bidertatzeko izanen litzatekeela ere.

Sustrai Erakuntza fundazioko Mikel Saralegiren hitzetan, «hurrengo pausoa proiektua Nafarroako Gobernuan aurkeztea izanen litzateke. Baina zalantzak ditugu Nafarroan edo Madrilen tramitatuko duten. Azken boladan, Madrilen legeak arindu dituzte, eta bertzeak bertze, ingurumen inpaktua ez da hain beharrezkoa proiektuei bidea irekitzeko». Gisa berean, «Nafarroan halako makroproiektuen hirugarren olatua etor daitekeela» ohartarazi du: «Azken lau urteotan bi olatu izan dira, bien artean 114 proiektu martxan paratu nahi izan dituzte.

Geroztik araudia arindu dute eta saiakerak ugalduko direla iruditzen zaigu».

Hala ere, «proiektua aurkeztu baino lehen batzuetan zeharka herrietara jotzen dutela» adierazi du Sustrai Erakuntza, «zer giro dagoen ikusteko eta informazioa biltzeko». Horregatik mezua luzatu die Bortzirietako eta Malerrekan udalei eta herritarrei: «Enpresek hasierako mugimenduak isilean egiten dituzte, baina badakigu pausoak ematen ari direla. Zenbat eta lehenago hasi galderak egiten, hobe». Lerro hauek idazterakoan, Arantzaren batzarrak egiten hasiak ziren.

Hortik haratago, «eredu energetikoari buruzko hausnarketa orokorraren beharra» nabarmendu du: «Parke eolikoak bai edo ez eztabaida baino gehiago da. Berriztagarrien hedapenaren eredua hau nahi dugu? Enpresa pribatuaren eskutik euren interes espekulatiboen erritimora, herritarren iritzia kontuan izan gabe?».



**ZUMARBEL**  
creaciones metálicas  
Igantzi (Navarra)  
948 63 74 11



**Lehen A.T.M. S.A.**  
Berrizaun 25,  
31790 IGANTZI  
T. 948 63 74 11  
zumarbel@hotmail.com  
www.zumarbel.es





**DESINSEKTATZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK**  
**DESINFEKZIOAK • HEGAZTIEN KONTROLA**  
T. 948 625 597 • Zalaia, 42 B • BERA



**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOATEGIA

EGUNEKO MENUA  
SAGARDOATEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KOMBINATUAK ...  
T. 948 625 472  
Alasta karrika - BERA  
zubiondojatetxea.com



Herri kirol desafio ikusgarrian aritu zen taldea. MAIDER PETRIRENA

## Giro ederrean joan da aurten ere Asteburu Kulturala

Emakumeen bertso saioa, mus txapelketa, herri kirol desafioa, Zumalekura mendi irteera eta bertze hainbat jarduera

### MAIDER PETRIRENA

Martxoko azken asteburua, Asteburu Kulturala ekitaldiz beterikoa izan zen. Eguraldia lagun, ortziralean haur jokoe-kin hasi ziren. Ilunabarrean *Gure aldetara, Nafarroako emakume bertsolariak* saio ederra eskaini zuten Saioa Alkaiza, Alazne Untxalo eta Maddi Ane Txoperenak. Entzuleak gustura gelditu ziren. Segidan afari autogestionatua ere izan zuten.

Larunbatean, plazan koltxonetan izan zituzten. Giro ezin hobean, bertaratutakoek salto ederrak egiteko aukera izan zuten. Ulibeltzak elkartean, berriz, goizean mus txapelketa jokatu zuten. Hamabi bikotek parte hartu zuten. Sailkapena ondorengoaren izan zen: 1. Iker Urroz eta Josune Etxebeste; 2. Joxe Martin Agirre-Joxe Miguel Galain; 3. Nieves Biurrarena- Pattere Galtzagorri eta 4. Tafallako bikote bat.

Arratsaldean, frontoira izugarritzko jendetza hurbildu zen herri kirol desafioa ederra ikustera. Bertan gazteek zaharren kontra afaria jokoan zuten. Egin beharreko lana on-



Mus txapelketako bikote onenak.

dorengoa zen: koxkorrak, txingak, zakuak, lasterka, ingudea eta arpana. Desafio ederra izan zen eta hagitx parekatua, zaharrek oraindik ere erakutsi zuten beraien nagusitasuna. Segida Bustitzen izan zuten, afari eder batekin eta bukaera, berriz, Ulibeltzak elkartean, DJ Infernuren eskutik.

Igande goizeko eguraldi txarrari aurpegi ona paratu eta kuadrilla ttiki batek Zumalekurako irteera egin zuen. Bertara ailegatu eta goxo goxo egon ziren, sua piztua baitzegoen. Eguerdian, erraldoien txanda izan zen eta kalejira-potea egin zuten. Zorionak antolatzaileei eta eskerrak eman parte hartzaile guztiei.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Eskolako ikasleak Lesakako igerilekuan

Aurten proiektu berri batean sartu da Sunbillako eskola. Osasuna sustatzeko sarean sartu da eta bertan igeriketara sustatu nahi izan dute, Malerreko eskola ttikitako Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasleen artean. Zortzi saio egin dituzte Lesakako igerilekuan.



ENEKO HERRERA

## Gazteak Hernaniko sagardotegian

Argazkian ageri den herriko gazte kuadrilla ederrak Hernaniko Oianume sagardotegian bazkari eta tarte ederra pasatu zuen martxoaren 18an. Ederki bazkaldu eta sagardoa neurrian edan ondotik, gustura ibili ziren eta, nola ez, berriz errepikatzeke gogoarekin bueltatu ziren herrira.



**Eramateko janaria**  
astelehenetik ortziralerara

**Zelain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Zelain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zelain.info



**LARRETXEAK EGVRRAK**

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri  
Piketeak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427







UEMAko kide diren udaletako ordezkariak Azpeitiko ekitaldian. ALBERTO BELOKI

## Doneztebe UEMAko kidea da martxoak 25az geroztik

Azpeitian egin zuten Batzar Orokorra, eta bertan izan ziren udaleko ordezkariak

### TTIPI-TTAPA

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kidea da Doneztebe martxoaren 25etik aitzinera. *Ehun udal eta hamaika gehiago* ekimena egin zuten egun horretan Azpeitian eta bertan onartu zuten Doneztebe UEMAko kide gisa. Ospakizun eguna ere izan zen, 100 baino gehiago direlako UEMAREN parte diren herriak.

Eguna hasteko bazkideek Batzar Orokorra egin zuten eta bertan onartu zuen Doneztebe UEMAREN barrenean sartzea, bertze hiru herriekin



Ekitaldian. ALBERTO BELOKI

batera. Ondotik, ekitaldi instituzionala egin zuten eta Doneztebeko Udalaren ize-nean Oier Zulaika eta Itziar Irigoien zinegotziak bertartu ziren.

## Eskolako ikasleek tailerrak eginen dituzte liburutegian

### OIER ZULAIKA

Liburuaren egunaren bueltan, apirilaren 19an, 20an eta 21ean eskolako ikasleentzako hainbat ekintza eginen dituzte liburutegian. Haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako lehenengo hiru mailetakoko ikasleek ipuin kontaketa izanen dute Haizea

Loirarekin. Gainerako ikasleek aldiz, sormen tailerra eginen dute Haizea Loiraren eta Margaretoarekin.

Ekintza horiek Doneztebeko Udalaren laguntzarekin antolatutakoak dira, eta helburua bertzeak bertze liburutegia eza-gutaraztea da.



UTZITAKOA

## Arbolak iaz jaiotako haurren omenez

Joan den urtean Donezteben jaio ziren haurren alde zuhaitzak landatu dituzte aurturaren Bortaxuri inguruan. Iaz hamalau haur jaio ziren Donezteben, eta zirimiriari aurre eginez, horien artean zortzi familia igo ziren landatzera. Ondotik, hamaiketako egin zuten.



Gaxuxa Zelaieta, Maialen Maritxalar eta Joanes Juanotena judokak. UTZITAKOA

## Espainiako Txapelketara sailkatu da Errekako Gaxuxa Zelaieta judoka

### OIER ZULAIKA

Denboraldi ederra osatzen ari dira Errekako judokak. Martxoaren 25ean jokatu zituzten Nafarroako Kirol Jokoen hirugarren jardunaldiak eta emaitza onak lortu dituzte. Gaxuxa Zelaietak lehenengo postua lortu zuen 57 kiloz azpiko kategorian, eta hiru jardunaldiak irabazita lehiaketa ere irabazi du. Gainera, apirilaren 29an jokaturako duten Espainiako txapelketarako ere sailkatu da.

Maialen Maritxalar judokak ere parte hartu du lehiaketan 63 kiloz azpiko kategorian, eta laugarren postuan sailkatu da.

Infantiletan, aldiz, Joanes Juanotena hirugarren postua lortu du.

### Juniorretan Espainiako txapelketatik kanpo

Nafarroako Kirol Jokoen gain, junior kategorian Espainiako Txapelketan jokatzeko Iparraldeko fasean lehiatu zen Gaxuxa Zelaieta martxoaren 19an. Zelaietak lau lehia jokatu zituen, horietako bi irabaziz eta bertze bi galduz. Hirugarren postuan gelditu zen Espainiako lehiaketatik kanpo, lehenengo biak bakarrik sailkatu baitziren.

# Pulunpa eskolakoak gustura dabiltza ateraldietan

Astelehenero Lesakako igerilekura joan dira batzuk, English week-era bertze batzuk eta Joku topaketan izan dira guztiak

## ARKAITZ MINDEGIA

Pulunpa eskolako ikasleak ateraldietan gustura pasatu dute. Alde batetik, LHko bigarren eta hirugarren mailakoak astelehen goizero Lesakako igerilekura joaten ziren igeriketa klaseak hartzera. Lehenagotik ikasitakoa hobetu eta gauza berriak ikasi dituzte, freskaldi ederra hartzeaz aparte.

Bertzetik, martxoko azkenaurreko astean Lekarozera joan ziren seigarren mailako ikasleak. *English week* kanpaldian egunero goizetik gauera bitarte ingeles klaseak emateaz aparte, txangoak, jolasak... hainbat ekintza izan zituzten astelehenetik ortziralera bitarte, eta egun politak pasatu zituzten.

Hala ere, bigarren hiruhilekoa akitu baino lehen, Pulunpa eskolako ikasleak eta irakasleak, Malerrekako eskola ttikiekin batera, apirilaren 4an Sunbilara txangoa egitekoa zuten. Bertan, Malerrekako eskola ttikietako Joku topaketaren bertze edizio bat egitekoa zuten.



6. mailakoak English week-en.

## Sareen erabilera egokia

Oihana Zabalen eskutik hitzaldi interesgarria izan zen eskolan gurasoei eskainia. Azkenaldian teknologia berrien presentzia nabaria da gizarteetan. Gure etxeko txikietan begia jarritz, hizlariak honen berri eman zuen. Helburu zehatzak jarri zituen: sareen arriskuen inguruan lan egitea, teknologia berriei eskatzen dute heziketa eta sentsibilizazioaren lanketa, horien erabilera egokia egiteko, beti ere prebentzioan oinarrituz. Hurbildu ziren gurasoen arabera, hitzaldi interesgarria izan zen. Sareetan dabiltzanean izan ditzaketan egoerak ikusita, tentuz ibiltzea komenigarria izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Laxoa motzeko partida Iturengo plazan

Baztan-Erreka desafioa jokatu zuten martxoaren 19an. Aurtengo edizioan laxoa motza (Iturengo plazan) eta paxaka (Legasako frontoian) partidak jokatu zituzten. Jende aunitz elkartu zen igande arratsalde pasa herriko plazan ezohikoa den kirola ikustera eta baztandarrak nagusitu ziren.

## Neska-mutiko gaztetxoak pilotan bikain eta Elizalde lau eta erdikoan txapeldun

### A. MINDEGIA

Azkenaldian herriko pilotariak ederki dabiltza. Errekan ari diren pilotariak Nafarroako kirol jokoetan, Baztango txapelketan, Josetxo Ezkurra eta Barañaingo txapelketan ari dira. Ados pilotako neskak, berri, Ezkio eta Antzuolako txapelketetan aritu dira azken asteburuetan. Ezkioko txapelketan Irati-Iraide eta Ianitz-Dunixe bikoteek maiatzaren 7an jokatu den finalerako sailkatu dira. Antzuolako txapelketan ere aurrera egin dute. Txapelketa honetan Duni-

xe-Iraide eta Irati-Janitz bikoteak osatu dituzte.

### Ugaitz Elizalde txapeldun

Esku pilotan gaztetxoak fin badabiltza, herriko pilotari profesionala ere horrelaxe ari zaigu. Garfe enpresan ari den Ugaitz Elizalde frontoitik frontoira dabil. Azken txapela ekarri berri du etxera, Garfek antolatutako lau eta erdiko txapelketaren finala 22-13 irabazi zion Etxeberrria II. ari Arnedon. Orain binakako txapelketan hasi berria da Aizpurrekin batera.

**Bizikleten salmenta eta konponketa.**

📍 Kanttonberri, 1 | BERA

☎ T. 948 631 218

✉ joxemi@kateabike.com

🌐 [www.kateabike.com](http://www.kateabike.com)

**ORBELA**

BEINTZAKO OSTATUA

Idola - Mikel

Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN

[info@orbela-beintza.com](mailto:info@orbela-beintza.com)

[www.orbela-beintza.com](http://www.orbela-beintza.com)

744 484 361

**ttipi-ttapa**

**MINIESKABAZIOAK**

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491





Aurtez ez dute musukoaren beharrik izanen margo tallerrean. ARTXIBOKOA

## Udan mendiak garbitzeko lanak esleitu ditu udalak

Arburu, Buralde, Ameztiegala eta Gorospilaga inguruko 10,30 hektarea garbituko dituzte, 7.084 euroren truke

### FERMIN ETXEKOLONEA

Zubietako udalak udako mendiko garbiketa lanak esleitu dizkio Iturengo Lasaga anaiak enpresari. Lanak 7.084,35 eurotan (BEZa barne) esleitu zaizkio. Lan horiek Arburu, Buralden, Ameztiegala eta Gorospilagan egin behar dituzte. Enpresak inguru horietan garbiketa egin beharko du, osotara 10,30 hektareako eremua txukunduz.

### Margoketa tailerra

Beste alde batetik, aurreko urtean bezala, aurten ere udalak margoketa tailerra anto-

latuko du apirilaren 13an eta 14an. Tailerraren iraupena lau ordukoa izanen da bi egun horietan, osteguna eta ostirala, banatuta. Ordutegia 11:00etatik 13:00etara izanen da.

Tailerra, aurrekoan bezala, Iciar Mikelperizena margolari ezagunak emanen du eskolan. Aldez aurretik izena eman behar da udaletxeko 948 45 01 61 telefonora deituz (08:00etatik 11:00etara). Plaza kopurua mugatua da, gehienez ere hamabortz lagun eta 10 euro ordaindu beharko da, materialerako.



UTZITAKOA

## Krisketa taldea Saint Patrick egunean

Herriko Ostatuko arduraduna jatorriz irlandarra izanik, bere herrialdeko egun handienari, Saint Patrick egunari seinalea eginez, ospakizuna antolatu zuen martxoaren 17an. Gasteizko Krisketa folk musika taldeak animazio ederra jarri zuen eta hango janari eta edariak dastatu zituzten.



ADOS PILOTA

## Naroa Elizalde kontratua berritua

Ados pilota elkarteko emakumeek frontoietatik eta txapelketetatik mahai ingururako bidea hartu zuten martxoaren 27an. Balantzea egin eta helburuak zehaztearekin batera, lan-kontratu berriak sinatu zituzten. Naroa Elizalde Etxekoloneak ere Adosekin segituko du.

## Herencias y Gestión

Zuregandik hurbil gaude

Mugaz gaindiko herentzien onarpena

Gizarte segurantzaren pensioen eskaera

Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO ☎ 948 59 67 11 - 610 40 18 36  
[www.herenciasygestion.com](http://www.herenciasygestion.com) • [herenciasgestion@gmail.com](mailto:herenciasgestion@gmail.com)



Eskualdeko udal ordezkariak Nafarroako Gobernuako agintari eta teknikariek.

## Life Kantauribai proiektua aurkeztu dute Bertizen

Ibaien hobekuntza ekologikorako Oria, Urumea, Urdazuri, Errobi eta Bidasoa hogeita bortz oztopo eraitsiko dituzte

### TTIPI-TTAPA BERTIZ

Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumene-ko kontseilaria den Itziar Gomezek Europako LIFE Kantauribai Proiektuaren esparruan egin den lehen informazio-jardunaldian parte hartu zuen martxoaren 22an Bertizen, inguruko udalei ekimenaren irismenaren eta onuren berri emateko. Ekimenaren helburua da Bizkaiko Golkoan isurtzen duten ibaien eta ibaiadarren (Natura 2000 ibai-sarekoak) hobekuntza ekologikoa lortzea.

Bertizko Natur Parkean egin ziren jardunaldian izan ziren Arantza, Bera, Donamaria, Doneztebe, Baztan, Igantzi, Lesaka, Bertizarana eta Sunbillako udal ordezkariak ere, hainbat agintari eta teknikarierekin batera.

Life Kantauribai proiektua Nafarroak gidatzen du, GAN-NIK erakundearen bidez eta bortz urteren buruan, Oria, Urumea, Urdazuri, Errobi eta Bidasoa ibaietan dauden 25 oztopo eraistea (horietatik 15 Nafarroan daudenak) eta 85 kilometro ibilgu askatzea (ho-

rietatik 57 Nafarroan) aurrei-kusten du.

Proiektuaren aurrekontu osoa 10.858.333 eurokoa da, eta Europar Batasunak LIFE programaren bidez finantzatzen du % 60a (6.514.995 euro). Programa hori 2022ko urriaren 1ean hasi eta 2027ko irailaren 30era bitartean gauzatuko da.

Aipatzekoa da Bidasoa eta Leitzaran ibaien habitaten eta ibai-espezieen kontserbazio-egoera hobetzeko balio izan duen LIFE Irekibai bukatu berriaren jarraipena eta bilakaera dela jardura hau.

### Kantauribai Efectua

Jardunaldiari hasiera emateko, Kantauribai Efectua bideoa aurkeztu zuten, zeinetan Nafarroako proiektu honen mugari garrantzitsuenak bistaratu eta presa bat eraitsi ondok, ibaiaren ibilgua nola geratuko litzatekeen irudikatzen den. [ikuserran.eus](https://www.ikuserran.eus)

Eraispenez gainera, bertze jarduketa batzuk (muturluze iberiarraren eta bisoi europarraren kontserbazio-egoera hobetzea...) ere egingen dituzte.



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ZABALO

## Arkupeak elkartearen besta Ezkurran

Aurten ere ez dute hutsik egin Arkupeak elkarteko Ezkurako kideek. Martxoaren 26an, igande goizean Arkupeak elkarteko kide ziren hildako herritarren omenez meza entzun ondoren Barranka jatetxean bapo bazkaltzeko eta bazkalondo goxoa izateko bildu ziren.



TESTUA ETA ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

## Beñat Albisu Nafarroako txapeldun

Beñat Albisu Etxeberría Beintza-Labaiengo korrikalari gaztea Nafarroako mendi lasterketetan txapeldun suertatu da 2022an, gazte mailan. Nafarroako Mendi Federazioak emandako garaikurra eta txapela hartu zuen martxoaren 10ean Iruñean.

## Nafarroako Presa-txakurraren eguna ospatuko dute Donezteben igandean

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako presa-zakurraren egunaren hogeita hamaikagarren edizioa egingen dute apirilaren 9an Donezteben. Igandean, 09:00etatik 13:00etara Basati Alaunt Nafarroako presa-zakurren aurkezpena, photocall eta herri kirol era-

kustaldiaren ondok, Egoitz Albizuri zenari omenaldia eskainiko diote. Gainera, SAPN elkartearen informazio-postua ere paratuko dute, kamixeta, pegatina eta *Basati* aldizkariaren hainbat alerekin, 14:00etan bazkaria izanen dute Santamaria jatetxean.



## Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



**«Gaur egun zaila da jakitea zein produktu den ona eta zein ez»**

**IXIAR ANDUEZA LANZ**  
ELIKA - BERA

2009an ireki zuen Ixiar Andueza Erika dietetika eta elikadura kontsulta Beran. «Nutrizioa eta dietetika ikasi nuen eta nire kabuz lan egin nahi nuen, baina produktuak saldu beharrean aholkularitzan zentratu». Elikaduraren arlo guztietako zerbitzua eskaintzen du; «lehen jendea pisua galtzeko etortzen zen, baina gero eta jende gehiago etortzen da analitikak hobetzeko, kolesterol arazoak, diabetesa eta hipertentsioa lantzeko, haurren edo haurdunen elikadura zaintzeko...». Bioinpedantzia aparatuen bidez gorputzaren grasa, muskulua, ura... neurtu «eta emaitza horietan oinarritzen dut elikadura pautak». Horrez gain, «gaur egun sobera produktu ditugu eskura eta zaila da jakitea zer den ona eta zer ez. Horregatik, etiketak ongi irakurtzen erakusten dut, eta janari osasuntsuak modu goxoa prestatzen».



**«Leitza beti izan da oso herri kirolaria»**

**ASIER ARZALLUS GIL**  
LEITZA KIROLAK - LEITZA

Aurten 10 urte egingen du Asier Arzallusek Leitza kirolak denda ireki zuela; «saskibaloiko jokalaririk profesionala izan naiz eta asko gustatzen zait kirolaren mundua. Gainera, inguruan ez zegoen horrelako dendarik». Bertan, kirola egiteko beharrezko guztia eskaintzen dute; «haur eta helduentzako arropa, oinetakoak eta osagarriak». Sasoiaren arabera aldatzen dute eskaintza; «orain, udaberritik aurrera, arropa motzak eta freskoak ditugu». Leitza «beti izan da oso herri kirolaria eta bizitza osasungarria eramate aldekoa. Ez du talde kirol bat izan beharrik; paseoak ematea, mendian ibiltzea, polikiroldengan ibiltzea... jendeak pozik hartu du horrelako denda bat herrian, gugana etorriko ez balira ez ginateke hemen egongo. Beste hamar urtez segitzea espero dugu».



**«Hagitz zaila da bezeroen kontsumo ohiturak aldatzea»**

**NATALIA REARTE OTEIZA**  
KUKUKA - DONEZTEBE

2009an ireki zuen Natalia Rearte Kukuka haurren arropa denda, «inguruan haur aunitz eta eskaintza eskasa ikusten genuelako». Geroztik, «bezero mota aunitz aldatu da. Gure betiko bezeroak zirenek gaur egun ez dute zerbitzu honen beharrik eta bezero berriek bertze kontsumo ohiturak dituzte; herrikanpo edo Internetez. Hagitz zaila da ohiturak aldatzea». Jaio berrietatik 16. neurria arteko arropa saltzen dute bertan: «mutilena neskena baino gehiago saltzen da, neskak lehenagotik hasten baitira helduak bezala bezitu nahian. Gazteentzako arropa egiten duten marka haundiek gero eta neurri txikiagoak egiten dituzte eta merkatua jaten ari dira. Herrietako negozioak bizirik mantentzeko, bertan erosten salatu behar dugu».



**«Gure lanarekiko pasio haundia dugu eta dena ematen saiatzen gara»**

**ITZIAR MENA BARBERENA**  
FOTO MENA - ELIZONDO

Foto Menak 136 urte bete ditu aurten eta Itziar eta Felix anai-arrebak dira laugarren belaunaldia. 1887tik, «guztiz aldatu da teknologia eta bezeroaren ikuspegia. Argazkilariaren figura medikuaren parekoa zen, ohore haundikoa, eta behartsu naiz dirudunek, denek nahi izaten zuten familiako argazkia. Argazki bakarra egiten zen, baina argiztapena eta enkoardaketa ongi zainduz. Guk lehenagoko moduan egiten dugu lan; argazki gutti baina zainduak». Etxean ikasitakoaz gain, «Felixek argazkigintza ikasi zuen eta nik diseinu grafiko, eta elkarren lana osatzen dugu». Garaietara moldatu nahian, «barne-diseinurako argazkiak egiten eta etxeko dekorazioan aholkatuz hasi gara. Paretarako collageak egiten ditugu eta jendea arras kontent gelditzen da emaitzarekin».



## 'Ongi etorri' argitalpena prestatu dute turistendako

Euskara Zerbitzuek, Uraren Bailarak eta Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak lagundu dute egitasmoa

### TTIPI-TTAPA

Ongi etorri! Hemen euskaraz bizi gara argitalpena prestatu dute Baztan, Bortziria eta Malerrekako Euskara Zerbitzuek turistendaki. Bi formatutan eskuratzen ahal da: paperean eta PDFan, sekalekoetan erraz erabiltzeko moduan. Aste Santu aitzinetik zabalduko da hiru eskualdeetako turismo bulego eta toki turistiko garrantzitsuen bitartez, baita euskara zerbitzu eta udalen bitartez ere. Euskara zerbitzuen Uraren Bailarak eta Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoaren laguntza izan dute argitalpena turisten artean banatzeko.

Argitalpenak Baztan, Bortziria eta Malerrekako hizkuntza errealitatearen berri ematen duen azalpen labur bat dakar euskaraz, gaztelerez, frantsesez, katalanez eta ingelesez. Azalpenean azpimarratzen da eskualde hauetan euskara hizkuntza bizia dela. Era berean, bisitariak ahal duten neurrian euskara erabiltzeko gonbita egiten zaie. Horretarako oinarritzko hizte-



Argitalpenaren azala.

gi bat erantsi da, gaztelera, frantsesa, katalana eta ingelesera itzulia. Horrekin batera QR kode bat agertzen da, eta lotura horrek euskarako hiztegia hizkuntza gehiagotara itzultzeko aukera ematen du (eta alderantziz).

Euskara zerbitzuek gainera, turismo arloko eragileek gisa honetako argitalpenaren beharra ikusi dute. Izan ere, euskara ere bada Baztan, Malerrek eta Bortzirien marka.

## Hamasei bisita gidatu prestatu ditu Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak

Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak 2023ko bisita gidatuen eskuorria eta QRa prestatu ditu, bisitariak eskura izan ditzan eskualdean egin ditzakeen bisiten zerrenda. Edizio honetan hamasei esperientzia eskaintzen dituzte. Eskuorrian bisitak egiteko baldintzak

zehazten dira: tokia, maiztasuna, ordutegia... Eskuragarri dago Baztan-Bidasoa Turismo Elkartearen establezimenduetan, eskualdeko turismo bulegoetan eta web orrian QR bidez deskargatzeko. Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen duen jardura da.



2018ko Nafarroaren Eguna Baigorri. JUAN MARI ONDIKOL

## Nafarroaren Egunarekin borobilduko den Kulturaldi mardula prest dute Baigorri

### TTIPI-TTAPA

Baigorriko Basaizea Kultur Batasunak antolatuta, Nafarroaren Eguna ospatuko dute apirilaren 30ean. Aitzinetik ere zenbait ekitaldi egingen dituzte, Baigorri eta inguruko herrietan ere.

**Apirilaren 13an**, ortzeguenean 20:00etan Urepeleko Amerikanoenean, Beasaingo dantza taldeak eta Bira produktioak-ek egindako *Azken dantza maisua* dokumentala eskainiko dute.

**Apirilaren 14an**, ortziralean 18:30ean, Popo Larreren oroimenez egindako *Bolante baten historia* filma emanen dute Baigorriko Bil Etxean, Lagunduren eskutik. Filma proiektatzeaz gain, ezagutu zuten lekukotasunak izanen dira.

**Apirilaren 15ean**, larunbatean 11:00etan, Beñat eta Unai Gaztelumendiren *Bidea da borroka* komiki aurkezpen kantatua egingen dute Ortzaizeko Menta liburutegian.

**Apirilaren 23an**, igandean 18:00etan Baigorriko Bil Etxean, Mairu Antzerki Tailerraren *Intxaurra* antzezlanak ikusgai izanen da.

**Apirilaren 28an**, ortziralean, Aldudeko Alfaroinian Colette Larrabururen *Francoren mende kantatzen genuenean* aurkezpen kantatua izanen dute.

**Apirilaren 29an**, larunbatean 20:30ean Baigorriko Bil Etxean Tartean Teatroa antzerki tal-

dearen *Ez Dok Hiru* antzezlanak ikusgai izanen da. 22:00etan, Cumbiam' Bero karrika animazioa izanen da ikastolan.

### Nafarroaren Eguna

**Apirilaren 30ean** Nafarroaren Eguna ospatuko dute. 09:00etan Merkaturia elizako plazan eta ikastolako askaria. 11:00etan desfilea Behereko plazatik Gaietako plazarat Ortzaizeko kabalkada, Beasain, Irurtzun eta Leizako dantza taldeekin, makilariak, Nafarroako eta Baigorriko ziganteak, trikitalariak, txistulariak, gaiteroak, Basaldunak eta Uztaritxeko txaranga, Ezpela eta Kuxkuxtu txarangak. 11:30ean ekitaldia. 12:00etan Bas' hitza eta Irrintzina. 13:00etan Larrain dantza eta Jauziak. 14:00etan Ikastolako bazkaria.

Herriko etxearen aitzinean, arratsalde osoan, haurren xokoa izanen da eta Pontx pailaoa 16:00etan. 14:00etan Ratapunk elektrotxaranga, 17:00etan Broken Brothers Brass Band, 19:00etan Larrain dantza eta 20:00etan taberna ibiltaria. Behereko plazan, 15:00etan bertso saioa familien xokoa: Aitor Etxebarriazarraga, Joanes Illarregi, Maddalen Arzallus eta Nerea Ibarzabal. 16:30ean dantza ikusgarria. 17:30ean Kiki Bordatxo. 19:30ean Janus Lester. 21:00etan Willis Drummond eta 23:00etan Dupla.





Mus txapelketako txapeldunak saria eskuetan dutela. UTZITAKOA

## Mus txapelketako txapelak Doneztebera

Juan Leon Etxekolonea eta Martin Mutuberria izan dira txapelketako txapeldunak

### TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Herriz herri kanporaketak jokatu ondotik, martxoaren 16an jokatu zituzten Donezteben Arkupeak elkarteko mus txapelketako finalak. Doneztebera joan ziren txapelak, Juan Leon Etxekolonea eta Martin Mutuberria izan baitziren irabazleak.

Bigarren postua Iruritako Martin Gamiorentzako eta Juan Angel del Moralentzako izan zen. Hirugarren postua Miguel Baleztena eta Antonio Telletxea eratsundarrek lortu zuten, eta laugarren postua, aldiz, Azpilketako Ma-

tias Arriadak eta Nicolas Alcasenak.

41 bikote elkartu ziren Donezteben, eta txapelketa 32 bikoterekin egiten denez, lehenik 9 bikote kanporatze-ko lehia egin zuten. Gosaldu ondotik, 11:00etan hasi zen txapelketa.

Irabazleek txapela eta urdaiazpiko bana jaso zuten; bigarrenek hiru botila ardo eta gazta bana eta hirugarrenak bi botila ardo eta gazta erdia.

Finalak jokatu ondotik, 14:00ak aldera bazkari ederra egin zuten.

## Apirilaren 27an egingen dute Donezteben soinketa eta herri kirol eguna

### TTIPI-TTAPA

Udaberriarekin batera, urteroko hitzordu garrantzitsua izaten dute bazkideek: soinketa eguna. Apirilaren 27an egingen dute Donezteben, baina hainbat berrikuntzekin, izan ere bazkideen kirol saioaz gain, herri kirol erakustaldiaz

gozatze aukera ere izanen baita. 11:00etan elkartuko dira denak eta soinketa erakustaldia egingen dute Doneztebeko frontoian. Bazkideek beren erakustaldia egin ondotik, 12:00etan herri kirol erakustaldia izanen da Cañamarek anaien eskutik.



Mendi irteeran parte hartu zuten mendizaleak Zigan. UTZITAKOA

## 61 mendizale elkartu dira Baztanen egindako mendi irteeran

### TTIPI-TTAPA

61 mendizale elkartu ziren Baztanen martxoaren 21ean hilabeteroko itzulia egiteko. Berroetarrak ziren antolatzaileak eta ibilbide ederra presatu zuten. Oronoz-Mugairin abiatu zuten itzulia, eta handik Zozaiara, Anizera, Berroetara eta Zigara joan ondotik,

hasierako puntura itzuli ziren berriz ere.

Eguraldi eguzkitsua izan zuten bide guztian, ibiltzeko aproposa. Denera 16 kilometrotako ibilbidea osatu zuten eta Urgain jatetxean egindako otorduarekin borobildu zuten.

Hurrengo hitzordua apirilean izanen dute Berastegin.

## Ruta de la Plata egiten ari dira bortz bazkide

Martxoaren 22an hasita, elkarteko bortz emakume Ruta de la Platako bigarren zatia egiten ari dira. Meridan hasi ziren eta Salamancaraino joanen dira oinez.

Ongi ibili Teresita, Maite, Luisa, Ixabel eta Marie Claire.



Bidea egiten ari diren bortzak.

Hauek dira Cañamarek anaien aitzorarekin egingen dituzten probak: kolpeka enbor bat moztuko dute lehenengo, zutikako enbor bat ondotik, erlojuaren kontra bertze enbor bat gero, eta bukatzeke erresistentzia proba egingen dute. Aizkoraren ondotik, aitzurra-ekin enborrak moztzen ariko dira eta baita trontzan ere.

Ondotik, bazkaria izanen dute Santamaria jatetxean

14:00etan eta eguna bukatzeko 17:00 Jose Angelekin dantzaldia egingen dute. 19:00etan hartuko dute itzulerako autobusa.

Izena eman nahi duenak, oraindik ere egin dezake Arkupeak elkartearen Doneztebeko bulegora deituta. Irteerak 50 euroko prezioa du, eta erakustaldian parte hartzen dutenen kasuan 35 euro ordaindu beharko dituzte.

# Apirilaren 15ean kantu bazkaria eta 22an Udaberri Pesta

Kantu bazkarirako txartelak hartzeko epea apirilaren 15ean bukatuko da eta Udaberri Pestako bazkarikoen kasuan 17an

## JUAN MARI BARRIOLA

Bete-betea dator apirila, era bateko eta besteko ekitaldiekin ongi hornitua. Aurrera Dantza Taldeak, esaterako, laugarrenez kantu bazkaria antolatu du apirilaren 15ean eta Pesta Batzordeak apirilaren 22rako Udaberri Pesta. Horiez gain, eskaintza zabala izanen da.

## Dantza ikuskizuna

Datorren astelehenean, apirilaren 10ean, Led Silhouette talde lesakarrak Creepy Crawly dantza ikuskizuna egingen du 19:00etan Herri Aretoan. Sarre-  
*raitza.eus* atarian eros daitezke zazpi eurotan, edo bestela, ikuskizuna baino 30 minutu lehenagotik zortzi eurotan.

## Kantu bazkaria

Apirilaren 15ean IV. Kantu Bazkaria antolatu du Aurrera Dan-



Hilaren 22an erraldoiak aterako dira.

tza Taldeak. 13:00etan plazatik abiatuta, kantu poteoa egingen dute eta ondoren, 14:00etan, bazkaria Erleta eskolako jangelan. Giroa alaitzeaz Angel Mariezkurena, Aitor Ibarra, Frantzisko Santxotena eta Beñat Mitxelena arduratuko dira, baina horiekin batera abeslari gonbidatu bereziak eta dantzariak ariko dira.

Txartelak Maimurren eros daitezke, eta bazkaria eta luntxaren prezioa 45 eurokoa iza-

nen da. Sarrerak erosteko azken eguna apirilaren 10a izanen da.

## Zinema

Apirilaren 15eko eta 16ko film emanaldietan Momiak eta To Leslie pelikulak ikusteko aukera izanen da Herri Aretoan: Momiak 16:30eko saioan eta To Leslie 19:00etako saioan. Azken horren kasuan, larunbateko saioa jatorrizko bertsioan emanen dute, azpigituluekin. Sarrerak, online eros daitezke, edo bestela, egunean bertan.

## Literatura geraldia

Literaturzaletasuna sustatzeko asmoarekin, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak literatura geraldia antolatu du Nafarroako Gobernua-  
ren laguntzarekin. Apirilaren 19an idazketa tailerra egingen dute Yolanda Arrietarekin. 18:30ean liburutegian bilduko dira. Izena [laga@iparmank.eus](mailto:laga@iparmank.eus) helbidera idatzita edo 948 51 08 14ra deituta eman behar da.

## Erakusketa

Apirilaren 21etik aurrera Rafa Etxarriren margolanak ikusteko aukera izanen da. Egun horretan *Aurkitu ezank hirea, aurkitu gaitunk gurea* erakusketa inauguratuko dute, 19:00etan.

## Udaberri Pesta

Pesta Batzordeak ere egitarau oparoa prestatu du apirilaren 22ko Udaberri Pesta giro ederrean atera dadin.

09:00etan hasiko dira ekitaldiak, txistularien dianarekin. 11:30ean erraldoien konpartsa dultzaineroekin aterako da eta 13:00etan duntzaineroekin kalejiran jarraitzeko aukera izanen da. 14:30ean herri bazkaria egingen dute trikitilariak alaituta eta eguna borobiltzeko 19:00etan Burrumba elektrotzarangak hartuko du leku-  
koa.

Herri bazkarirako txartelak Txoko eta Peritza tabernetan eros daitezke, 26 eurotan. Azken eguna apirilaren 17a izanen da.

## Hitzaldia

Hileta zibilen lantaldeak ere lanean segitzen du, eta aurretiazko borondateen inguruko hitzaldia antolatu du. Apirilaren 27an izanen da, 19:00etan Herri Aretoan.

## EBKren hitzordua

Apirilaren 28an Energia Berriztagarrien Komunitatearen hurrengo pausoei buruz hitz egiteko bilkura antolatu dute. 19:00etan Herri Aretoan elkartuko dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Sareren bertso bazkaria

Martxoaren 25ean Atekabeltzen egin zuten Sarek antolatutako bertso bazkaria eta 45 lagun inguru bildu ziren. Sareko kideek euskal presoen sakabanaketako amaieraren berri eman zuten. Eta ondoren, jendearen gozamenerako, Aitor Mendiluze eta Xabat Illarregi bi orduz gelditu gabe bertsotan aritu ziren.



EH MUS ELKARTEA

## Vinagre eta Ortiz bikain musean

Euskal Herriko muslari hoberenak Zornotzan (Bizkaia) bildu ziren martxoaren 25ean, Euskal Herriko Mus Txapelketako finala jokatzeke. Leitzatik hiru bikote sailkatu ziren, eta tartean, Ivan Vinagre eta Francisco Jabier Ortiz *Kikok* egin zuten aurrera. Sailkapen nagusian zazpigarren gelditu ziren.



# Baztarrolako errepikagailura doan bidea moldatzekotan

Nafarroako Gobernuak 200.000 euroko inbertsioa egingen du Basakabitik Baztarrolara doan bidea konpontzeko

## TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuak 200.000 euro inbertituko ditu Leitzan, Basakabitik Baztarrola mendian dagoen errepikagailura doan 2,8 kilometroko bidea konpontzeko.

Aspaldiko eskaera da. Udaren arabera, «joan den mendeko 90eko hamarkadatik hasita, udalak askotan eskatu dio Nafarroako Gobernuari errepide horren zoladura konpontzeko, orduz geroztik oso egoera txarrean baitago».

Egoera ikusita, 2020an udalak auzolanerako deia egin zien herritarrei, «errepide horretatik zirkulatzea eragozten zuten zulo nagusiak estaltzeko». Hori dela eta, gobernuaren esku hartzea «pozgarritzat» jo du udalak, eta «herritar guztiek gogo onez» hartuko dutela uste du.

Dagoeneko hasi dituzten lanekin erretenak garbituko dituzte, bideraino ailegatzten diren adarrak moztu eta bidea garbituko dute. Horren ondoren asfaltatzeko lanak egingen dituzte.

## Sutea izan da Arkiskil auzoan

Martxoaren 25ean mendiak garbitzen ari zirela, suak alde egin eta sutea zabaldu zen Arkiskil auzoan. Nafarroko suhiltzaileak eta herriko suhiltzaile boluntarioak luze aritu ziren itzaltze lanetan eta bi helikoptero ere ibili ziren.



## Iberon gaztaina landareak sartu dituzte

Nafarroan gaztainondoak berreskuratzeko ekimenaren parte, gaztaina landareak landatu dituzte Iberoko eremuan. 550 landare sartu ditu Nafarroko Gobernuak, udalakitxi, garbitu eta zulatutako bi hektareako azaleran. Helburua bertako zuhaitza berreskuratzea da.

## Osinalde sariketako finalean ariko da Xabat Illarregi

Iaz bezala, aurten ere Osinberde bertso sariketa irabazi du Xabat Illarregi, eta hala, Osinalde sariketako finalean kantatuko du. Martxoaren 25ean Zaldibian jokatu zuten Osinberde, eta han nagusituta, apirilaren 15ean jokatu du Osinaldeko finala Gabirian.

## Kanpoan zaborra botatzea debekatua da

Kanpoan zaborrak botatzea debekatua dela gogoratu nahi izan du Mendialdea Mankomunitateak, baita legearen arabera, 6.000 eta 60.000 euro arteko isunak izan daitezkeela ere. Leitzako eta Goizueta-ko garbigunetara eramateko eskatu du.

## Apirilaren 16an hasiko da azoka ibiltarien denboraldia

Mendialdeko Azoka Ibiltarien laugarren denboraldia ate joka da. Udalek, Plazaola Partzuergoak eta Cederna Garalurrek antolatuta, apirilaren 16an Atallun (Araitx) egingen dute aurreneko azoka, eta hortik aurrera, urrira arte, beste zazpi azoka egingen dituzte: maiatzaren 14an Arruizen (Larraun), **ekainaren 4an Goizueta**n, ekainaren 25ean Lekunberrin, uztailaren 2an Latasan (Imotz), uztailaren 30ean Jaunsarats (Basaburua), **irailaren 24an Areson** eta urriaren 8an Beuntzan (Atetz).

## 28 bikote nagusien Mendialdeko pilota txapelketan

Gaztetxoan lehia bukatuta, kadeteen, gazteen eta nagusien mailako lehia sartu da Mendialdeko eskuz binakako laugarren txapelketa. Umore Ona pilota elkartearekin batera, Leitzako Aurrera eta Larraun pilota elkarteek, Araitx-Areso-Betelu-Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateak eta Nafarroako Pilota Federazioak antolatu dute eta 28 bikotek eman dute izena. Azken orduko aldaketarik ez bada, finalak maiatzeko aurreneko asteburuan Leitzan jokatuko dituzte.

# SOLAR

# TRES60

Eguzki energiaren instalazioan espezialistak gara.

Energia fotovoltaiakoko eta energia eraginkortasuneko lanak egiten ditugu profesional talde kualifikatuarekin

**DENA GURE ESKU**

DIRULAGUNTZAK

MONITORIZAZIOA

FINANTZIAZIAZIOA

GARANTIAK

KONPENTSAZIOA

ZERBITZU TEKNIKOA

☎ 644 60 18 78 ✉ info@solartres60.com

📍 Poligono industrial La Barrena, C. Canal de Navarra. TUTERA

## Goittikiren aldeko garagardo festa apirilaren 22an

Txartelak salgai jarri dituzte eta erosteko azken eguna apirilaren 18a izanen da

### TTIPI-TTAPA

2019an herriko garagardoza-le batzuek hasitako bideari segida emanez, apirilaren 22an garagardo festa antolatu dute, eta iaz bezala, bildutako dirua Goittikirentzat bideratuko dute.

21:30ean Umore Ona elkar-tean bilduko dira afaltzeko (entsalada, zerri saiheskia, saltxitak, patata purea, postrea, kafea eta kopa) eta Euskal Herriko eta kanpoko garagardoak dastatzeko aukera izanen da: Euskal Herriko Ago, Tripel eta Ixo Horia, Belgikako Leffe eta Alemaniako Krombacher. Afaria Ainhoa Zabaletaren musika doinuek girotuko du.

### Txartelak salgai

Txartelak Motzane eta Amaia-renean jarri dituzte salgai. Kopuru mugatua dela aurre-



lazko garagardo festako irudia.

ratu dute eta apirilaren 18a arte izanen da erosteko aukera. 25 euroko txartela erosiz gero, horren barrenean menua eta bost garagardo sartuko dira, eta 15 euroko txartela hartuz gero, menua edaririk gabe. Sagardoa edota ardoa nahi duenak elkartean eskatu eta ordaindu beharko du.

Antolatzaileek adierazi dutenez, ez dituzte beraien gain hartuko gerta daitezkeen ez-beharrak.



ELENA ARTETA

## Liburutegi ibiltariaren geldialdia

Liburuz betetako kutxa hartuta, Elena Arteta Leitzako liburuzaina Goizuetan izan zen martxoaren 24an. Hilabetero-hilabetero bere geldialdia egiten du liburutegi ibiltariak eta apirilekoa hilaren 28an egingen du, ohi bezala, 14:30etik 15:30era.

## Herri lurren aprobetxamendua arautzeko ordenantza dela eta

### TTIPI-TTAPA

Herri lurren aprobetxamendua arautuko duen ordenantzaren prozedurak aurrera segitzen du. Unai Miranda alkatearen arabera, «herritarrek inprozesu parte hartzailea egin genuen eta hiru bileretan hitz eginda-koarekin eta denen artean adostutakoarekin» ordenantza osatu zuten. Horri udalak hasierako onespina eman zion eta ondoren, 30 eguneko epea zabaldu zuen espedienteaztertutako eta erreklamazioak aurkezteko. Joan den astean, martxoaren 29an, bukatu zen epea. Baserriarren Batzordeak, berriz, bere hitzetan «legez kanpokokoa den eta zentzuzkoa ez den ordenantza horri alegazioak» jartzeko asmoa zuela aurreratu zion TTIPI-TTAPARI. Eta gehiago ere bai: «Aldaketa sakonik izaten ez badu, bide judiziala hartuko» duela jakinarazi du. Gaiaren inguruan idatzia egin eta herrian eta baserrietan banatuko dutela adierazi du.

## Eskolako DBH 2ko ikasleek olinpiadetan parte hartzen ari dira

### TTIPI-TTAPA

Lanean fin eta gogotsu dabil-tza Xalto eskolako ikasleak, eta pauso bat harago joanez, DBH 2ko ikasleak olinpiadetan parte hartzen ari dira. Alde batetik, Espainiako IV. Gazteen Olinpiada Zientifikoa parte hartu dute eta bestetik, Matematika-ko XXXV. Tornamira Olinpiadan ariko dira. Espainiako Olinpiada Zientifikoa bi talde aurkeztu dituzte Xalto eskolak. Azken fiñen izeneko taldean Oier Ruiz, Adur Sagardui eta Lorea Saldias aritu dira eta Xaltoka taldean Irati Apezetxea, Elaia Narbarte eta Uxue Ollor. Martxoaren 23an Nafarroa mailako aurreneko kanporaketan parte hartu zuten. Fase nazioanala uztailean Madrilan izanen da. Matematikako olinpiadan, berriz, Lorea Saldias Makazagak eman du izena. Maiatzaren 6an San Adriango Ega institutuan izanen du hitzordua. Aurrera eginez gero, estatu mailako fasea Kanarietan jokatu-ko du ekain bukaeran.



FELIX LOIARTE

## Musikari gaztetxoek emanaldi ederra

Piano, gitarra, trikitixa eta saxofoi doinuak aditzeko aukera izan zuten herritarrek martxoaren 16an udaletxeko ganbaran. Aralar Musika Eskolako ikasleek kontzertu ederra eman zuten eta herritarrek ere ederki erantzun zuten; jende asko bildu zen emanaldiaz gozatzen.





Teresa eta Joxepa jubilotekako erabiltzaileak Ainhoa Ansa hezitzailearekin.

## Aresoko jubilotekako atekak zabalik daude nahi duenarentzat

Asteazkenero udaletxean biltzen dira eta era askotako jarduerak egiten dituzte

### TTIPI-TTAPA ARESO

Irribarretsu ageri dira argazkian Teresa eta Joxepa, Ainhoa Ansa hezitzailea erdian dutela. Halaxe pasatzen baitute astean behin jubilotekako hitzordua, pozik. Asteazkenero udaletxeko aurreneko solairuan biltzen dira, 10:00etatik 13:00etara, eta Ansak nabarmendu duenez, «giro polita izaten dugu».

«Etxetik ateratzeko aitzakia polita» dela gaineratu du, askorako ematen baitu jubilotekak: «Astean goiz bat zerbait desberdina eginez pasatzekoa, lagun gehiagorekin batera; burua, atentzioa, memoria...

lantzeko ariketa edo joko batzuk, eskulanean bat tarteka, batzuetan kantatu, beste batzuetan sortu, txikitako oroitzenak edo bizipenak elkarbanatu...». Eguraldi ona bada, paseo bat emateko ere aprobetxatzen dute, eta txarrarekin gorputza mugitzeko ariketa lasaiak egiten omen dituzte. Ansak argitu duenez, «herriko jendearekin ere elkartzen gara».

Probatu nahi duenak atekak zabalik ditu. Gizarte zerbitzuetara dei dezake (948 51 08 40), eta gustatzen bazaio, jubilotekara joaten hasi. Hilean bost euro ordaindu behar dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Pagoak landatu dituzte aresoarrek

Aurten ere hutsik egin gabe atera dira Aresoko neska-mutikoak eta gurasoak zuhaitzak landatzera. Guraso elkarteak antolatutako hitzorduan, 40 pago landatu zituzten aurreko astean Urteagan. Aitzurrak hartuta gogotik aritu zen lanean argazkiko kuadrilla.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Aresoarrak Villabonako dantzari egunean

Martxoaren 18an Oinkari Dantza Taldearen Dantzari Eguna egin zuten Villabonan. Oinkarik hartua du herriko dantza ikastaroaren ardura, eta horren harira gonbidatu zituzten herriko gaztetxoak dantzari egunera. Dotore jantzita, ederki ibili ziren.

## Liburutegi ibiltariaren hurrengo hitzordua apirilaren 28an Aranon

### TTIPI-TTAPA ARANO

2020 hasieran eman zituen aurreneko pausoak liburutegi ibiltariak, Harkaitz Delgado orduko Leitzako liburutzaileak liburutegi zerbitzua Aranora, Goizuetara eta Aresora zabaltzeko. Gerora Elena Arteta liburutzaileak eman zion

segida zerbitzuari, eta gaur egun, abuztuko oporretan izan ezik, hilabetero-hilabetero liburutegi zerbitzua kuxkak hartuta bisita egiten du Aranora.

Apirileko hitzordua ere zehaztu du Artetak: hilaren 28an etorriko da, eta 16:00etatik 16:30era herrian izanen da.



Martxoaren 24an Aranon izan zen Leitzako liburutzaileak. ELENA ARTETA

## «Pandemiaz geroztik, herriko plazak beteago daudela sumatu dugu»

JAIONE ELIZAGOIEN ELIZEGI 'HAUSPOLARIEK' TALDEKO KIDEA

Hamar urte bete dira Hauspolariek herrietako plazak alaitzen hasi zirenetik, eta taldearen ibilbideaz eta Baztan Kantuz ekimenaz aritu da Jaione Elizagoien taldekidea

R. OSKARIZ ELIZONDO

«Musikaz eta momentu ttikiez disfrutatzea maite duen baztandarra» da Jaione Elizagoien Elizegi. Hauspolarien kide da duela hamar urte taldea sortu zenetik, eta Baztan Kantuz ekimenarekin herriz herri ibiltzen dira karrikak girotzen.

**Nola hasi zinen musikarekin?**

Tiki-ttikitatik egon izan naiz musikaren munduan murgilduta. Familian euskal musikarekiko afizio haundia egon izan da eta badago, eta horrek niregan eragina izan du. Sei urte nituela solfeoa ikasten hasi nintzen Baztango Musika Eskolan eta zazpi urterekin akordeoia jotzen. Oraindik ere akordeoia jotzen segitzen dut, eta duela urte batzuk teklatura jotzen hasi nintzen.

**Noiz osatu zenuten Hauspolariek?**

2013an sortu genuen taldea. Horren aitzinetik ni nire kontu hasia nintzen inauteri, bazkalondo eta kinto bestetan bakarrik jotzen, 16 urte inguru nituela. Handik urte batzuetara Iruñe ezagutu nuen eta elkarrekin jotzen hasi ginen biak, baina lehenengo ahotsa egiteko norbait behar genuela eta, lehenagotik ezagutzen genuen Izaskuni aipatu genion. Udako arratsalde batez hiruak elkartu ginen, zer egiten ahal genuen ikusteko. Hantxe animatu eta uda horretan bertan Oronozko bestetan jo genuen lehenbiziko aldiz. Iruñe, Izaskun eta hirurok osatzen genuen taldea, baina zoritxarrez, gai-



Izaskun Iparragirrek eta Jaione Elizagoienek osatzen dute Hauspolariek. UTZITAKOA

xotasun baten ondorioz, Iruñe ezin izan zuen taldearekin segitu...

**Geroztik, hainbat herritan ibili zarete...**

Bai, hala da, herriko bestetan eta baita bazkalondoetan eta antzekoetan ere. Bestetako bazkalondoko giroa aunitz gustatzen zait, herri bazkari edo zikiro ondoko joaldiak. Giro arras polita izaten da. **Erromeriak garrantzia haundia dauka oraindik eskualdean?**

Bai. Egia da musika komertzialak indar haundia hartu duela gazteen artean, baina pandemiaz geroztik, herriko plazak beteago daudela sumatu dugu. Etorkizunean ere horrela segitzea nahiko nuke, ikusiko dugu...

laren bitartez, eta bertan jotzeko aukera eman ziguten.

**Nola funtzionatzen du?**

Hilabeteroko hirugarren igandean herri batean izaten da ekimena, 15 herrietan kantuz aritzeko aukera emanez. Normalean gu Joxe Angel akordeolariarekin txandatu aritzen gara, bi hilabetetik behin jotzen.

**Jende aunitz hurbiltzen da kantatzera?**

Herriaren eta dataren arabera dela erranen nuke. Herri batzuetan kantatzeko ohitura gehiago dagoelako edo, jende gehiago hurbiltzen da. Hala ere, bertako jende gutti edo guttiegi hurbiltzen dela erranen nuke. Proporzioan, Iruñea aldetik edo Iparraldetik etortzen den jende gehiago egoten da.

**Musikariak ere joaten dira, ezta?**

Bai, normalean Izaskun eta ni akordeoiarekin egoten gara eta gainontzeko musikariak hurbiltzen dira, hainbat leku-tatik etorriak, gitarra, harmonika, zeharkako txirula, klarinetea... jotzen dutenak. Giro ederra sortzen da.

**Euskal kantuak bizirik mantentzeko modu bat da?**

Hala dela erranen nuke. Hala ere, hurbiltzen den jende gehiena adin batetik goitikoa izaten da, gazte gutti ikusten dira. Ohitura kontuak direla uste dut, baina euskal kantak ez atzentezko modu polita da, bai. Gainera, pandemia ondoko garaian, herrietara alaitasuna ekartzeko modua izan da. Batez ere adineko jendeak eskertzen duen zerbaite izaten da.

**Zein dira zure asmoak etorkizunera begira?**

Ahal izanez gero, Hauspolariek taldearekin aitzinerat segitzea. Aurten hamar urte egin ditugu elkarrekin jotzen hasi girela eta horretan segitzea espero dut. Taldearen izenean, eskerrak eman nahi diet gure inguruko herriei, musikarekin lotuta bizi izan ditugun momentuez gozatzeko aukera emateagatik! Mila esker aunitz!

**Testuinguru honetan, posible da musikatik bizitzea?**

Arras zaila da. Gure kasuan, gainera, nabarmena da guk jotzen dugun musika estiloa gero eta guttiago aditzen dela gaur egungo gazteen artean, eta horrek eragina dauka. Hala ere, guk zaletasun gisa hartzen dugun zerbaite da.

**Baztan Kantuz ekimenean ere jotzen aritzen zarete, ezta?**

Bai, duela bizpahiru urte jarri zen martxan Baztango Uda-

**«BAZTAN KANTUZ EUSKAL KANTAK EZ ATZENTZEKO MODU POLITA DA»**



# Apirileko agenda kulturala ekimenez barra-barra

Musika, solasaldiak, azokak, dokumental emanaldia eta gazteen topaketa, ez da aspertzeko aitzakiarik izanen

## TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak hilabeteko ekitaldi eta jarduerak agenda kulturalan bildu ditu bertze behin, adin guztietako herri-tarren gustura prestatutako eskaintzarekin.

## Bailableak eta Baztan Kantuz

Musika eta dantza gustuko dutenek bi hitzordu izanen dituzte hilabete honetan. Apirilaren 9an, igandean, bailableak (muxikoak, jotak eta larrain-dantzak) dantzatze-ko aukera izanen da Oronozko plazan 12:30ean, Elizondoko Gaiteroen eskutik.

Hurrengo astean, apirilaren 16an, Baztan Kantuz ekimena Lekarozen izanen da, 12:00etan plazan.

## Azokak hilabete osoan

Baztango Artisauak eta Baztango Zaporeak elkarteek larunbat goizeko azokekin segituko dute apirileko aste guztietan Elizondoko plazan. Ohiko egunez gain, Aste Santuko ortziralean, apirilaren 7an, bertako ekoizle eta artisauak plazan egonen dira.



Iratxe Retolaza eta Eider Rodriguez.

## Irakurle taldea eta literatura geraldia

Liburu zaleek ere hainbat jarduera izanen dituzte Baztango Liburutegi Publikoan apirilean. Hilabetero bezala, Komiki eta nobela grafikoen irakurle taldea hileko hirugarren astelehenean, apirilaren 17an, 19:00etan bilduko da Adur Larrea komikigilearekin.

Honez gain, Idazleekin Solasean elkarteak eta Baztango Euskara eta Berdintasun Zerbitzuek bi solasaldi antolatu dituzte. Apirilaren 19an 18:00etan Iratxe Retolaza idazleak *Irakurbide feministak euskal literaturan* solasaldia emanen du. Bertzeak bertze, «literaturak zertan lagun dezakeen feminismoan urratsak

egiteko» azalduko du. Apirilaren 26an, berriz, Eider Rodriguezek *Idazleen gorputzak* liburu aurkeztuko du liburutegian 18:00etan. Literaturaren inguruko hausnarketa egin eta emakume idazleen ahotsak biltzen ditu liburuak.

## Dokumental proiektzioa Iruritan

Zinema zikloarekin segituz, *Karpeta urdinak* filma proiektatuko dute Gizarte Bilgunean apirilaren 21ean 19:00etan. 1960-2014 bitartean izandako tortura eta tratatu txarrak ikeritzeko lanaren emaitza da dokumentala.

## Baztango eta Baigorriko gazteen topaketa

Baztango Udalak eta Baigorriko Herriak antolatua, bi ibarretako gazteak elkar ezagutzeko topaketa izanen da apirilaren 14tik 16ra Amaiurko aterpean. 12 eta 15 urte bitarteko gazteei zuzendua, mendi martxa, dokumentala, ginkana eta ezagutza solasak izanen dituzte, bertze bertze.

## Bertako hegaztiak ezagutzeko ibilaldia

Baztango Talde Ekosozialak eta Amezti Elkarreak *Baztango hegaztien eta kulturaren arteko loturak. Begirada ekologiko bat* ibilaldia antolatu dute hilaren 23an, 11:00etan Elizondoko plazatik abiatuta. Marcos Isasi eta Gorka Valdes biologoek gidatuko dute ibilbidea.

## Lanbide Eskolaren jasangarritasuna sustatuz

Elizondoko Lanbide Eskolak adierazi duenez, «zentroko irakasle klastroak eskola jasangarriago bateranzko konpromiso zehatzak hartu ditu». Helburua «eskolako komunitatearen artean Baztan-Bidasoko errealitatea ezagutaraztea eta produktuak sustatzea da. Alde batetik, bertako enprestan erosketak egitea lehenetsi dugu. Bertetik, bertako ingurunea, errealitatea, kultura, enpresak eta produktuak ezagutarazteko jarduerak antolatzeko konpromisoa hartu dugu. Azkenik, berrerabilpena eta soberakinak eskolako kideen artean elkartrukatzeko jarduerak antolatuko ditugu». Honez gain, «eskualdeko gainontzeko erakundeak jasangarritasunaren aldeko pausoak ematera animatzen ditugu eta bide horretan elkarlanerako gure presuntasuna azaltzen dugu».



Elizondoko Lanbide Eskola.

**MARMOLES SOULE**  
[www.marmolessoule.com](http://www.marmolessoule.com)  
 ARIZKUIN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | [marmolessoule@gmail.com](mailto:marmolessoule@gmail.com)

LAPIDAK  
 PANTEOIAK  
 HILERRIAK  
 ZAHARBERRITZEAK  
 GARBIKETAK  
 HARRI ZIZELKATZEA

**ANELAN**  
 LAN BERTIKALAK  
 948 031 174  
[info@anelan.pro](mailto:info@anelan.pro)

Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.  
 Egiten ditugun lanak:  
 Fabaden konponketak,  
 segurtasun-sistemen  
 instalazioak, teilatuen eta  
 azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

**ANZABAL**  
 inmobiliaria

- Inmobiliaria  
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804  
[anzabal@anzabal.com](mailto:anzabal@anzabal.com) • [www.anzabal.com](http://www.anzabal.com)



Martxoaren 17an talde berriak lehen agerraldia egin zuen. TTPI-TTAPA

# Martxan da aurtengo Baztandarren Biltzarra

26 laguneko taldea bildu da antolakuntza berrartzeko eta «ilusio eta gogoz» bestaren 60. edizioa prestatzen hasi dira

## TTPI-TTAPA

Urte hasmentan Baztandarren Biltzarra elkarteak antolakuntzaren ardura utziko zuela jakinarazi zuen. Orain, bailarako 26 gaztek osatutako talde berria aurkeztu dute, eta uztailearen 16an egingen den 60. Baztandarren Biltzarra prestatzen hasi dira.

## Taldearen aurkezpena

«Orain dela 60 urte, 1963an Aralarrean egindako ateraldi batean zenbait baztandarrek Baztandarren Biltzarra bestaren hazia erein zuten. Ilusioz ereindako hazia izan zen, auzolana, euskara eta baztandarron elkartasuna ardatz hartuta. Argi zuten auzolanean egindako besta hura berezia izanen zela eta baztandarrontzat urtero-urtero errepikatu beharreko zita bilakatuko zela. Hazi hartatik, landare eder bat sortu zen, edozein lurzorutan, edozein eguraldirekin ere, urtero loratuko zena.

Urtarrilaren 2an, Baztandarren Biltzarra itzaltzera zihola komunikatu zuten orain arte kide zirenek. Horren aitzinean, orduko zenbait kide

eta ilusioz agertutako zenbait baztandar elkartu eta elkar-tearekin aitzinera egitea erabaki dugu. Ilusioz hasi dugu bidea. Aurten, gainera, 60. urteurrena izanen dugu eta berezia izatea nahi dugu.

Horibai, elkarte bizirik mantentzeko ezinbertzekoa da urtero kide berriak animatzea, transmisioa eta taldearen indarberritzea modu naturalean gerta dadin. Zuen laguntza ere beharrezkoa izanen dugu; gu motorra izanen gara baina boluntarioen eta 15 herrien laguntza ezinbertzekoa da besta behar bezala ospatzeko.

Azkenik, Baztandarren Biltzarrako elkartetik pasatako kideez oroitu nahi dugu. Hainbertze urtez ilusioz besta honen antolakuntzan aritu zareten guztiei esker mila, bihotz-bihotzez esker mila!

Baztandarrak: hasi baserri-tar jantziei hautsak kentzen, has zaitezte zuen orgetarako ideiak pentsatzen, segi Baztanen eskuaraz barra-barra solastatzen, auzolan erraldoi hau ez baita itzaliko! Uztailearen 16an Elizondoko karriketan elkar ikusiko dugu!».



Txapelketako partaideak eta finalistak Aranabia frontoian. MIREN BALLARENA

## Gurutze Aizpuru eta Jose Javier Elizainzin Iruritako frontenis txapelketako irabazleak

### TTPI-TTAPA

Urtarrilean herriko gazteek Iruritako I. Frontenis Txapelketa Mistoa abiatu zuten. 30 lagunek eman zuten izena eta 15 bikotetan aritu dira azken hilabeteetan. Martxoaren 25ean jokatu zuten finala.

Egun osoko egitaraua presatatu zuten. 11:00etan 3. eta 4. postuak erabakitzeko partida izan zen eta Beñat Mariezkurrenak eta Ainara Dendarietak 30-27 irabazi zuten Naroa Elizainzin eta Hegoi Iturregiren kontra. 12:00etan, berriz, finala jokatu zuten; Gurutze Aizpuru eta Jose Javier Elizain-



Jendetza bildu zen finalean.

zinek 30-19 irabazi zuten Arturo Iturralde eta Ainhoa Retegiren kontra.

Partiden ondotik bazkaria egin zuten Gizarte Bilgunean, eta besta izan zuten Kapitan General Djarekin.



ARITZ ELIZEGI

## Frontenisean eskolaren alde Gartzainen

Eskolako jangelarako dirua lortzeko, binakako frontenis txapelketa abiatu zuten gartzaindarrek. 12 bikotek parte hartu zuten eta martxoaren 24an finala jokatu zuten. Aritz Elizegik eta Miren Arraztoak Maitane Aleman eta Fermin Iriberriren kontra irabazi zuten. Zorionak!





'Landa eremuaren defentsan' lelopean deitu dute bertze behin mobilizazioa.

# Erdiz Bizirik taldearen aldarriak Iruñeko karriketara

Apirilaren 22an Erdizko meategiaren kontrako manifestazioa egingen dute 17:00etan Antoniutti Parketik abiatuta

## TTIPI-TTAPA

Apirilaren 22an Iruñeko karriketara ateratzeko deia egin du Erdiz Bizirik plataformak. «22 urte pasatu dira Gobernu Batzordeak Magnesitas Navarras enpresari Erdizen zundaketak egiteko baimena eman zionetik. Momentu hartan herritarrok ez genuen begi onez ikusi Baztango bazkaleku komunal handiena erdiz-erdi zulatzea, zertarako eta enpresa erraldoi baten sakelak betetzeko. Baztandarron %87 meategi proiektuaren kontra lerrokatu ginen. Gaur egun, oraindik, Erdizen egin nahi den meategi proiektuaren aurka segitzen dugu».

Mobilizazioa Iruñean egiteko arrazoia argi utzi dute: «berez guri dagozkigun erabakiak hartu nahi dituzte, eta beharbada, bertara joaten bagara, orain arte entzun (nahi izan) ez dutena entzun beharko dute».

Manifestazioaren eguna ere ez da ausaz hautatu: «Lurraren Nazioarteko Eguna da. Landa eremuaren alde kalera ateratzeko egun ezin hobea. Hortaz, manifestaziora gonbidatzen

dugu landa eremua defendatu nahi duen pertsona oro. Landa eremuaren defentsan, apirilaren 22an denak Iruñe-ra!».

## Solasaldi informatiboak

Proiektuaren nondik norakoak azaltzeko, plataformak hainbat solasaldi eman ditu Euskal Herri osoan martxoan eta apirilean, tartean Igantzin, Elgorriagan, Goizuetan eta Elizondon. Sei gehiago emanen dituzte apirilean: 7an Baigorriin, 13an Azpeitian eta Lesakan, 18an Oñatin, 19an Iruñean eta 20an Leitzan.



Joseba Otondo alkatea eta Oianko Garde euskara zinegotzia. BAZTANGO UDALA

# Baztango euskara plana diseinatzeko prozesua abian

Iritziak entzuteko eta proposamenak egiteko espazioak zabalduko dituzte apiriletik azarora

## TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak euskara plana diseinatzeko prozesu parte hartzailea paratuko du martxan apirilean, «euskarearen normalizazio prozesuan urrats esanguratsuak emateko helburuarekin».

Prozesuak bi mugarri nagusi izanen ditu. Lehenbizikoa *Nondik heldu gara?* galderan oinarrituko da, «hau da, euskararen egoera zehatza zein den galde egingen die baztandarrei». Horretarako, galde-tegiak zabalduko dituzte. Baztan bere osotasunean hartuko dutela aintzat, eta

horregatik lan-mahaiak eta bilera irekiak egingen dituzte ekainean eta irailean kuartelka. Gainera, «gazteengana iristeko helburu irmoa» dute eta haiei zuzendutako saioa antolatuko dute Elizondon.

Iritzi bilketaren ondotik, *Nora goaz?* faseari ekinen diote, bigarren mugarri nagusia. Iraila eta urria «proposamenak egiteko eta gakoak identifikatzeko garaia» izanen da. Proposamenak egitea errazteko, bilera irekiak antolatuko dituzte. Baztango Udalak prozesuan parte hartzeko deia egin die herritar guztiei.

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ  
T. 948 452 143 - 948 452 449  
info@harriian.com www.harriian.com

**HARRI LAN, SL**  
ERREKONSTRUKTIOA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

**BRIKO BAZTAN, SL**

Bainuontziaren lekuan  
dutxaontzia jartzea  
Pinturak  
Fatxadak  
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura  
Birgaitzeak eta obra berriak  
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052  
San Andres, 66 - NARBARTE  
(Sarrera Legasatik)



Nafarroako Gobernuak eta Baztango Udaleko ordezkariak Aritzakunen. NAFARROAKO GOB.

## Aritzakungo gaztainondo plantaziora bisitan

40 urte baino gehiago ditu plantazioak eta Nafarroan gaztainondoa berreskuratzeko gune garrantzitsua da

### TTIPI-TTAPA

Martxoaren 21ean, Basoen Nazioarteko Egunean, Nafarroako Gobernuak ordezkariak Aritzakungo gaztainondo plantazioa bisitatu zuten. Bertan izan ziren ere Baztango Udaleko Florentino Goñi eta Juan Kruz Iriarte mendi zinegotzia.

Aritzakungo plantazioa 1983/84 urteetakoa da eta gaur egun 12.000 arbola heldu ditu, haundienak 57 zentimetroko diametroarekin eta 33 metroko altuerarekin. Zuhaitz hauek Nafarroako gaztainondoen berreskuratze prozesuan inportanteak izan dira, gaixota-

sunek larriki kaltetutako espeziea izan baita. Nafarroako Ingurumen sailak ezaugarri onenak dituzten sei zuhaitzen genotipoa identifikatu eta klonatu egin du, baita zuhaitz baten hazitik datorren landarearekin ere. Hauekin, gaitzak jasaten dituzten arbolaren entseguzko birpopulaketak egin dituzte zazpi lursailetan: Baztanen, Leitzan, Luzaiden, Arantzan eta Beran, Lesakan eta Iturenen. Lursail hauen garapena behatuz eta neurtuz, Nafarroan gaztainondoa berreskuratzen lagunduko duten emaitzak lortzea espero dute.

## 187.350 euroko inbertsioak egin ditu Gobernuak Lekarozko aterpetxean

### TTIPI-TTAPA

Gaur egun, Nafarroako hiru aterpetxe dira Nafarroako Gaztediraren Institutuaren parte, tartean Doneztebeko Belbieretxea eta Lekarozko aterpetxea. Instalazioak hobetzeko eta eraginkortasun energetikoa sustatzeko, hainbat lan egin dituzte azken urteetan.

Lekarozen, zehazki, 187.350 euroko inbertsioak egin dituzte. Bertzeak bertze, ohatzeak, armairuak eta gortinak berritu dituzte, eta sukalderako labe industrial bat erosi dute. Honez gain, kanpoaldean atletismo pista berritu dute eta lehenagoko igerilekuan pump track bat egitea aurreikusi dute 2023rako.

Eraginkortasun energetikoa-ri dagokionez, Europako funtsen bitartez gas berogailuaren



Lekarozko aterpetxea kanpotik.

ordezkapenean ari dira lanean, horren ordez biomasa eta eguzki-panelen bidezko energia ezartzeko aterpetxean eta baita Lekarozko institutuan ere.

### 4.817 lagun 2022an

Lekarozko aterpetxeak 132 plaza ditu, eta joan den urtean 105 taldek hartu zuten ostatu bertan, 4.567 lagun guztira. Honez gain, bakarkako 250 aterpeke izan ziren 2022an.

## Baztan eta Bertiz Abentura Parkeek denboraldi berria ireki dute

### TTIPI-TTAPA

Martxoko azken asteburuan denboraldi berriko ateak ireki zituen BKZk Bertizaranan eta Baztanen. Bertzen 60 jolas baino gehiago dituzte eskuragarri, hainbat zirkuitu eta tirolinetan banatuak. Elizondon, berriz, tirolinak, pendu-

lua, ferrata bidea, akuapark naturala... dituzte, haur eta helduei egokituak. Beharrezkoa da aitzinetik erreserbatzea.

Honez gain, BKZk jakinarazi duenez, bilerak berrartu dituzte udaleko teknikariekin, Beartzungo parkea haunditzeko proiektuaz solastatzeko.

## EGUZKI PLAKEN INSTALAZIOA

Proiektu, baimen eta diru laguntzen gestioa  
Amortizazio planen azterketa



ELEK  
3ERRI  
INSTALAZIO  
ELEKTRIKOAK

646854825 / 616898065 · [elekberri@gmail.com](mailto:elekberri@gmail.com) · Elizondo (Baztan)





# asegi asesorías

## *Zergalan*

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortzenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

**www.zergalan.es | zergalan@asegi.es**  
**www.asegi.com**

Baztanberri plaza, 6  
 31700 ELIZONDO  
 T. 948 581 300 - F. 948 580 648

Eztegar pasealekua, 22-1  
 31780 BERA  
 T. 948 631 108

Eliza Karrika, 22  
 31740 DONEZTEBE  
 T. 948 450 395 - F. 948 451 304

Eltzeta, 20  
 31770 Lesaka  
 T. 948638077



Maritxu eta Vicente, autoan harat-honat. MARIFA ETA KORO

## Turistek zer egin behar ez duten erakusteko eguna

Nafarroa Ezagutu Sareak antolatu zuen martxoaren 18an eta umorezko antzerkia eta hainbat postu izan ziren herrian

### MARIFA ETA KORO

Gehienek maite dugu toki berriak ezagutzea, eta harat-honat ibiltzea bisitari bezala. Horrekin lotuta, jardunaldi polita egin zen martxoaren 18an herrian, Nafarroa Ezagutu Sareak antolatua.

Funtsean, museoa eta leze barneko ibilbidean hainbat postu paratu zuten, bisitari (edo turista) batek nola ez duen jokatu behar erakutsiz.

Adibidez, hoietako batean Monreal herriko ordezkariak zeuden, ibilgailuen erabilera egokia nola izan behar duen erakusten. Herri honetako Higa mendian arazo haundiak omen dituzte harat doaien pistan sartzen diren autoekin, eta guztiz minberatuak dira gai honekin.

Bertze postu batean Ameskoakoak ziren, mendira ateratzerakoan zer hartu behar den kontuan erakusten: mendiko seinaleak errespetatu behar direla, ekipazio egokia eraman behar dela, ibilbidea aitzinetik ikasia eramatea...

Bazegoen sua eta zaborrari buruzko bat, zozketa batean parte hartzeko aukerarekin.



"Bisitariak" astoa molestatzen.

Eta gisa horretan denetara zazpi postu. Hoietako bat, arrakastatsuena, tokiko produktuen izan zen, urrik dastatzeko baitziren batzuk (zikiroa edo esparragoak), edo erosteko (gaztanbera, garagardoa...). Ibilbidean umorezko antzerkia egiten zuten aktoreak ibili ziren, jendearekin harremanetan jarri eta ironiaz "bisitari molestagarrien" papera egiten zutenak.

Nafarroa Ezagutu Sareak 100 bat partaide ditu, horien artean gure eremuko hauek: Arano, Beintza-Labaien, Goizueta, Lesaka, Zubieta eta Zugarramurdiko Herriko etxeak. Elkarte edo bertze gisako entitateak ere biltzen ditu.



MARIFA ETA KORO

## Pantaila eta proiektore berria auditorioan

Proiektore eta pantaila berriak jarri dituzte auditorioan, handiagoak eta erresoluzio hobearekin. Bisitarientzat ez ezik, gela hau herritarrek ere erabiltzen dugu, filmak, dokumentalak eta gisa honetakoak ikusteko. Beraz, ongi etorria izan dadila denendako mesede den aldaketa.

## Elvira Rocak 'Las brujas y el inquisidor' eleberria aurkeztu du museoan

### MARIFA ETA KORO

Zugarramurdin kokatuak diren istorioak eta historia kontatzen dituzten hainbat eleberri badaude. Hoietako batzuk fikziozkoak dira: Ibon Martinen *El último akelarre* eta Susana Rodríguez-en *Bajo la piel*.

Bertze batzuk aldiz, sorgin ehizako gertakarietan oinarrituak dira. Horietako bat, Mikel Azurmendi antropologo handiaren *Las maleficas* da (gertakari haietako informazio zehatz aunitz biltzen duena). Hor dugu Patxi Irurzunen *Los dueños del viento* eta, azkena,



Elvira Roca liburuarekin.

orain berriki argitaratu eta Zugarramurdin martxoaren 21ean Sorginen Museoan aurkeztu den Elvira Rocaren lehen eleberria, *Las brujas y el inquisidor*.

### Ainhoa Altzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak  
Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hiltzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

BERRIK.L.  
**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

048 63 14 52 / 630 60 80 34 / 630 56 50 65

Zalain Ind., 42 Bera.





Martxoko azken asteburuan erdi prezioan sartu ziren lezera. ONDIIKOL

## Lezeen eguna ederki ospatu dute Ikaburuko lezean

Lezera erdi prezioan sartzeaz gain, herrian eta errotan bisita gidatuak eskaini zituzten martxoko azken asteburuan

### ARANTXA ETA IRAIA

Aitzineko urteetan egin den moduan, Lurpea lezeen elkar-  
teak Kobazuloen eguna anto-  
latu zuen martxoko azken  
astebururako. Urdazubiko  
lezeaz gain, Pozalagua, Ekain-  
berri, Arrikrutz, Mendukilo,  
Isturitz-Oxocelhaya, Sara eta  
Zugarramurdiko lezeek osatzen  
dute Lurpea sarea eta denetan  
ekitaldiak antolatu zituzten  
bisitarien zati. Sarrerek %50eko  
deskontua izan zuten eta bi-  
sitariak Lekunberriko Hotel  
Ayestaran hostalean gau bat  
pasatzeko aukera izan zuten.  
Horrez gain, bisitari guztien

artean 10 bono zozketatu eta  
produktu saski bat lortzeko  
aukera izan zen. Ikaburuko lezeetan, aipatu-  
tako sarreraren %50eko deskon-  
tuaz gain, herrian bisita gida-  
tua egiteko aukera izan zen  
igandean. Eguerdian lezetik  
abiaturik eta herriko bisita gida-  
tua egin ondotik, errota bisita  
gidatua ere egin zuten.

### Urteko lehen ezkontza

Martxoaren 19an, igandeare-  
kin herriko etxean urteko lehen  
ezkontza ospatu zen. Sara  
Vidaurre eta Poti Rekarte izan  
ziren egunaren protagonistak.



ARANTXA ETA IRAIA

## Gaztetxoak Harremana jubilotekan

Bada denbora bat gaztetxoak Harremana jubilotekara joaten  
direla ortzirale arratsaldetan. Hala, herriko zahar eta gazteak  
saretzen eta lotzen ari dira ekintzak eta eskulanak elkarrekin  
eginez. Denak ongi etorriak dira nesken eskola zaharrerat  
momentu goxo bat pasatzera eta harremanak sendotzera!

## Magia ikuskizuna izanen da apirilaren 22an eta 23an Trikuharri zentroan

### ARANTXA ETA IRAIA

Urdazubiko Trikuharri zen-  
troak bigarren magia festiba-  
la antolatu du herrian apiri-  
laren 22 eta 23ko asteburura-  
ko. Bertan, sei magok parte  
hartuko dute: Teresa Dream,  
Ernestwey, Jaime Perla, Mag  
Marcus, Doc eta Javi. Apirila-  
ren 22an, larunbatarekin ha-  
siko da festibala. 11:00etan,  
magia tailerrak eskainiko di-  
tuzte hurbildutako bisitarien-  
tzat, eta 18:00etan eta 21:30ean  
magia emanaldiak eskainiko  
dituzte. Igandean, berriaz,  
11:00etan eta 17:00etan izanen



Joan den urteko magia ikuskizuna.

dira magia emanaldiak. Leku  
mugatuak izanen dira, beraz,  
erreserbatzea gomendatu dute  
hurrengo telefono zenbakie-  
tara deituta: 601 35 13 19 - 603  
73 15 27.

Tradizioa, historia eta gastronomia

asadormontxo.com

Akuler kamrika, 12  
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)  
+34 848 85 00 21  
info@asadormontxo.com

**Biniloak**  
Pareta eta  
erakusleihoetarako  
Neurrira eginak, azido efektua,  
elektrostatikoak, gardenak,  
jartzeko errazak...



Robert Loic nagusitu zen asteburuko bi probetan. PIERRE EZKURRA

## 680 kirolarik parte hartu dute Sara Korrika Trailen

Robert Loic eta Oihana Azkorbebeitia izan dira bizkorrenak martxoaren 26ko 22 kilometroko lasterketan

### GANEX

Sara Korrika Trail 22 kilometroko lasterketan 680 kirolari parte hartu zuten martxoaren 26an, igandean, lasterka egiteko aro ederra lagun zutela. Orotan bizkorrena, Robert Loic izan zen (1.52.28). Hamar minutu baino gehiago alde atera zion bigarren izan zen Damien Saint Martin-i (2.03.11) eta hirugarren Paul Mathou izan zen (2.03.38). Lehen emakumea Oihana Azkorbebeitia Urizar izan zen (2h 25.51) bigarren Sarah Dinclaux (2.33.03) eta hirugarren Larraitx Etxebeste Lizaso (2.38.32).



Robert Loic eta Maria Ordoñez.

### Kilometro bertikala

Bezperako Kilometro Bertikalean ere Robert Loic gailendu zen gizonezkoetan eta Maria Ordoñez izan zen bizkorrena emakumeetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Oronoz eta Goienetxe txapeldun

Ania Oronoz eta Marie Goienetxe saratarrek irabazi dute ezker paretako Laboral Kutxa masterra, senior mailako pilota goxoarekin. Martxoaren 19an Arrigorriagan (Bizkaia) jokaturako final gogorrean 18-12 irabazi zieten Etxaniz eta Aramendiri.



GANEX

## Eskuen Lana elkartearen erakusketa

Eskuen Lana eskulangile eta artisten elkarteko kuku eta dendarien erakusketa egin zuten martxoaren 19an Lur Berrin. Jende ainitz ibili zen. Brigitte Sasias, Eskuen Lana elkarteko lehendakaria, bere lagunekin, izigarri kontent zen eta erakusketa izan ziren guztiak eskertu zituen.

**JOSENEA**  
**ZONE AUTO**

**ZURE ZERBITZURA:**

- Servizietako aholkularia
- Enbarkatzaileak
- Dira aldatzea
- Parafatuak

**KALITATEKO MANTENTZE-LANAK PREZIORIK ONENEAN**

- Garbiketa-zentroa
- Gasolindegia
- Auto-garbitagi automatikoa
- Tailer mekanikoa

Hitzordua telefonoz edo whatsapp bidez: **+34 608 791 971**

**+34 948 599 236** - [www.josenea.es](http://www.josenea.es) - [centroauto@josenea.es](mailto:centroauto@josenea.es)

**TAILERAREN ORDUTEGIA:** Asteleheneetik ostiralera: 09:00 - 13:00 eta 14:00 - 18:00 | **Gasolindegia ORDUTEGIA:** 24 ordu/24

Josenea Zone Auto (Dantxarriko muga) Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantxarrieta Nafarroa.

## Larrungo Koloreak eta Eskuen Lana erakusketak

Usaian bezala Larrungo Koloreak taldeak egiten du bere erakusketa pazko egunetan, apirilaren 8, 9 eta 10ean, Denen Etxean egun guzian. Sar-tzea urrik. Eskuen Lana taldeak, berriz, egun horietan Lur Berrin eginen du erakusketa, 10:00etatik 18:00etara.





Itxaro Borda eta Dabadie, liburu aurkezpenean. JL BESSONART

## Olerkarien Udaberria iragan da hainbat hitzordurekin

Itxaro Bordak azken liburu aurkeztu zuen, mugak aipagai, Funosas aita-alabak

### JL BESSONART

Olerkarien Udaberriak sortu dituen ekitaldiek aipamena merezi dute. Martxoaren 14an abiatu zen Mediatekan, haurrekin testuak irakurritz. Arratsean Itxaro Bordak, Séverine Dabadieren argazkiekin aurkeztu zuen *Herri hau poema bat* da liburu berria. Hilaren 16an, Larrekon, *Theatre mon amour* antzerkia, eskoletako klase batzuk parte hartu dute. Arratsean *Mugak* aipagai izan dira, Elixabet ETXANDI, Iban Larrandaburu eta Elena Casiriain hizlariekin. Hilaren 17an, Aroberri ostatuan, bertso-po-



Wanda eta Daitoha kontzertuan.

teoa: Ortzi Idoate eta Irantzu Idoate Funosas aita-alabak ziren bertsotan. Hilaren 18an, Arbaso elkartearen ekimenez, Wanda eta Daitoharen kontzertua Larrekon.

## Kultur Topaketen Garaian hainbat ekitaldi prest apirilaren 1etik 16ra

### JL BESSONART

Apirilaren 1etik 16ra egiten ari da Kultur Topaketen Garaia. 2022an sortua izan da ekimen hori, senpertarrak bildu daitezten kulturaren inguruan. Eskulangileen arte erakusketak, Apirilaren 1eko eta 2ko asteburuan izan da Larrekon. Elirale elkartearen eta Senperko eskoletako haurren dantza ikuskizuna, apirilaren 4an eta 6an, 19:30ean Larrekon. Sortze tailerra, Pazkoko arroltze zonbaiten egitea, apirilaren 8an, Errepirako parkean egun guzian, eta arroltze xerkatzea

haurrentzat 11:00etan. Pop Pop baporezko ontzi itsaske-ta apirilaren 8an Errepirako parkean egun guzian. Arnaud Demancheren umorezko ikusgarria, apirilaren 14an, 20:30ean Larrekon. Apirilaren 15an, larunbatarekin, bi partetan gaualdia. 20:00etan Zarena Zarelako dantza taldeak *So Egin* emanaldi berria emanen du. Herriar anitz ari dira talde honetan. Andoni Oilo-kiegik segituko du bere kontzertuarekin 21:00etan, Ihauterietan sekulako emanaldia aurkeztu zuen, pilota plazan.



JL BESSONART

## Herriko kontseilua Herrian Bizirekin bat

Hats-Berriren ekimenez, argazki bat egin izan da herriko auzapeza eta kontseilari guziekin. Etxebizitza eskubidearen alde borrokan ari den *Se loger au pays - Herrian* Bizi mugimendua sustengatu nahi izan du gisa horretara herriko kontseiluak.

## Hamar batzorde sortzea deliberatu du kontseiluak

10 batzorde sortu eta 8 axuntaburu: Hirigintza (Dolosor); Kirola-elkarteak (Francisco). Laborantza-oihanak (Tapia); Finantzak (Comat); Komunikazioa (Fages); Haurtzarogazteria-eskolak (Arhan-cet); Kultura-turismoa (Salag-nac); Komertzioa (Bouvet).



Kontraleihoak | Leihoak aluminio eta PVC  
Itxidurak | Berandak | Toldoak  
Barandak | Persianak

T. 00 34 948 630 962 - H. 31780 BERA  
info@irekileihoak.com  
www.irekileihoak.com





Paxaka partida Legasako Mendibegi frontoian. UTZITAKOAK

## Baztanek irabazi dio Malerrekari laxoa eta paxaka desafioa

Iturengo plazan jokaturako laxoa laburreko eta Legasako frontoian jokaturako paxaka partida irabazi dituzte baztandarrek

### TTIPI-TTAPA

Baztan izan da Laxoa Elkartean antolatutako aurtengo desafioaren txapelketa, martxoaren 19an Malerrekaren kontrako bi partidak irabazita. Lehenik, laxoa laburreko partida izan zuten Iturengo plazan, eta gero, paxaka partida Legasako frontoian.

Iturenen jokaturako laxoa partidan, baztandarren laukotea Aitor Zubigarai, Xabi Mihura, Oinatz Jauntsarats eta Mikel Sagasetak osatu zuten, eta Errekako laukotea Jon Apeztegia, Iker Bereau, Koldo Legarra eta Laurendi Zelaiek. Iturengo partida parekatua joan zen hasieratik, eta tanto



Laxoako laukoteak Iturengo plazan.

politak ikusi zituzten. Azkenean, baztandarrek 9-6 nagusitu ziren.

Ondotik, Legasako Mendibegi frontoian jokatu zen paxaka partida. Baztandik Manu Irigoien, Mikel Mindegia eta Xabier Barberena aritu ziren. Errekatik Ioritz Zelaieta, Ugutz Zelaieta eta Javi Apeztegia. Hemen ere tanto arras politak ikusi ziren, baina baztandarrek ez zioten erremontatzeko aukerarik utzi Malerrekakoei eta hasieratik paratu ziren aitzinetik. Azkenean, 9-3 irabazi zuten baztadarrek.

Beraz, 2023ko desafioaren txapelketa Baztan izan da, baina, batez ere, paxaka eta laxoa ikusteko aukera izan dute ezohiko plazetan.

## Amaiur eta Beti Gazte hasi dira 4x4 sokatira txapelketan

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako goma gaineko 4x4 sokatira txapelketa abiatu da apirilaren 1ean Lesakan. Amaiur eta Beti Gazte dira eskualdeko ordezkari nagusien kategoria guztietan. Lesakan, gizonetzkoen 320 kiloko eta emakumezkoen 255 kiloko lehen jardunaldia jokatu zuten. **Apirilaren 22an** Txantrean kategoria horietako bigarren jardunaldia izanen dute.

**Maiatzaren 6an** Berriozarren txapelketa mistoa jardunaldi bakarrean erabakiko da. Egun horretan, kadeteak (eskualdeko ordezkari gabe) eta 20 urtez behekoak (Amaiur ariko da) ere lehiatuko dira.

**Maiatzaren 13an** Antsoainen, gizonetzkoen 300 kiloko eta emakumezkoen 235 kiloko lehen jardunaldiak eta gazteen bigarren jardunaldia jokatu dituzte.


**Maiatzaren 20an** Elizondon, azkenik, pisu arinetako bigarren jardunaldia eta gazteen hirugarrena jokatu dituzte.



UTZITAKOAK

## Uxuri Portu lider Espainiako trial kopan

Espainiako trial kopako lehenbiziko proba jokatu zen martxoaren 18an Cartagenan (Murtzia). Lesaka Trial taldeko Uxuri Portu 9-12 urteko nesken kategorian aritu zen eta lehenbiziko postua lortu zuen. Modu honetara, 9 urterekin, Portu da Espainiako kopako lehen liderra bere kategorian.



UTZITAKOAK

## Ainara Unanua Nafarroako txapeldun

Martxoaren 19an Lodosan jokaturako Nafarroako ipar martxa txapelketan, emakumezkoen senior mailan txapeldun izan zen Ttuku Ttuku taldeko Ainara Unanua gartzaindarra eta gizonetan, bigarren eta hirugarren izan ziren Ramontxo Arandia beraterra eta Jon Medrano elizondarra.



# «Parajearen edertasunak lasterketa erakargarri egiten du»

**SONIA ITURRIA ETA JULEN OSKOZ** ARANTZAKO MENDI LASTERKETAREN ANTOLATZAILEAK

Apirilaren 23an Arantzako IV. Mendi Lasterketa egingen dute, 20 kilometro eta 1.300 metroko malda dituen proba. Aurtengoa Nafarroako Koparako puntuagarria izanen da

**G. PIKABEA** ARANTZA

Arantzako Mendi Lasterketa antolatzen buru-belarri harra-patu ditugu Sonia Iturria Mitxelena eta Julen Oskoz Elizondo arantzarrak. Ekaitza Elkar-teko zuzendaritzako kidea da Iturria, eta mendi lasterketen mundua hurbiletik ezagutzen duena Oskoz. Lasterketaren laugarren edizioa izanen da aurtengoa eta apirilaren 23an eginga dute hitzordua. Mendi lasterkariei animatzeko deia egin diete.

**Aurtengoa laugarren lasterketa izanen da. Nolakoak izan ziren hasierako pausoak?**

Arantzako Mendi Itzulia urte aunitzetan antolatu izan da herrian, eta momentu jakin batean, mendi lasterketek azken boladan gurean duten arrakasta ikusita, Arantzan ere halako lasterketa bat antolatzea erabaki zen. Lasterketa gaztea da, baina egutegian bere lekua hartzen ari dena.

**Nolako bilakaera izan du lasterketak?**

Hasiera hartan lasterketa motzagoa antolatu genuen, maila guztietako lasterkariak erakartzeko aldera. Baina ez dugu atzenu behar Arantzako zirkua, berez, ibilbide zirkular ia perfektua eta zoragarria modu naturalean antolatzeko aukera ematen duela. Alde horretatik, Euskal Herriko bertze eremu batzuekin konparatuz, abantaila dugu, bertako parajearen edertasunak lasterketa erakargarri egiten baitu.



Julen Oskoz eta Sonia Iturria Arantzako Mendi Lasterketa antolatzen ari dira.

**2016an egin zen lehenbizikoa, 2017an bigarrena eta 2019an hirugarrena. Gaur egun bi urtetik behin egiten da, mendi itzuliarekin txandakatuz. Ardura haundia izaten da Ekaitza Elkartearentzat?**

Mendi itzulia eta lasterketa antolatzea hagitx diferentea da. Mendiaz gozatzeko bi modu diferente dira. Mendi itzuliaren kasuan, egunpasa edo lagun giroa izaten da nagusi, mendiaz lasaitasunez gozatzeko da helburua, nahiz eta partaide batzuek lasterka ere egiten duten. Mendi lasterketa bertze kontu bat da: abiadura, lehia, sailkapenak... Hori guztia kontuan hartuz, antolakuntzan ere eragina du, noski. Aurtengo lasterketa Nafarroako Mendi Federazioaren babesarekin egiten

ari gara eta laguntza haundia da. Lehen enpresa pribatuekin egiten zen izen ematea ere federazioaren bitartez egiten ari gara. *inscripciones.nafarmendi.org* atarian apuntatu behar da. Gehienez 250 parte hartzaile izanen dira eta apirilaren 18an bukatuko da epea.

**Noiz hasi zineten aurtengoa antolatzen?**

Urri aldera hasi izanen ginen. **Nola aurkeztuko zenukete Arantzako Mendi Lasterketa?**

20 kilometroko luzera eta 1.300 metroko malda dituen lasterketa da. Hagitz paraje politikak ditu, gehiena mendia da, ia ez da pistarik.

**Laugarren edizioa da. Badu ibilbide bat. Lasterkarien egutegian egonkortu den karrera da?**

Karrera aunitz izaten dira eta horietako aunitz hagitx errotuak daude. Gure kasuan, egonkortasun hori bilatzen ari gara oraindik. Horren harira, aurtengo Nafarroako mendi lasterketen zirkuituan sartua dago eta Nafarroako Koparako puntuagarria izanen da, gainera. Aipagarria da kopa hori lehenbiziko aldiz antolatu dutela aurtengo, eta sei lasterketa baino ez direla izanen puntuagarriak.

**Aurtengo Xabier Zubietari emanen duzue?**

Bai, emanen dugu. Ekaitzako kaskotik pasatzen diren lehenbiziko Bortzirietako emakumezkoak eta gizonezkoak hartuko dute.

**Mendiari lotuta Arantzan erreferente izan zen Zubietari?**

Bai, hala izan zen. Gazte-gaztetik beti mendian ibili zen, Pirinioetan, Himalaian, Kilimanjaron, Andean... Arantzako Mendi Itzulia hasi zutenetako bat izan zen.

**Zenbat boluntario behar izaten dira halako ekimen bat aitzinera ateratzeko?**

Mendi itzulia baino jende guttiago behar izaten da. Konparazio batera, izena emateko maharik ez da izaten dena online egiten baita, eta lasterketako puntuak ere guttiago dira. 20-30 bat lagun izanen gara. Jendea laguntzeko prest izaten da eta laguntza eskatuz gero, beti parte hartzen du. Alde horretatik, ez da arazorik izaten. **Zein dira lasterketako momenturik eta tokirik berezianak?**

Punturik politena, dudarik gabe, Ekaitzako tontorra da. Eta bertalde, herriko lasterkariak helmugara ailegatzen diren momentua berezia izaten da.

**Mezuren bat luzatuko zenukete?**

Lasterketetan parte hartzen dutenei gonbita luzatuko genieke, aukera polita dute Arantzan. Herriak aukera aunitz ematen ditu eguna edo aste bukaera pasatzeko. Gainera, holako zerbitzu antolatzen denean, eguraldiak laguntzen badu, beti saltsa izaten da. Herrian bada zer egin eta non egon eta etor daitezela.



ONDIKOL

### AMAIUR 'Atzoko, gaurko eta biharko sareak', Baztango eta Baigorriko gazteen arteko topaketa

Mendi martxa, dokumentala, ginkana, ezagutza solasak... 12 eta 15 urte bitarteko gazteendako. Aterpean, apirilaren 14tik 16ra. Baztango Udalak eta Baigorriko Herriak antolatua.

### MUSIKA

#### ORONÓZ-MUGAIRI Bailableak

Plazan, apirilaren 9an, 12:30etan.

#### SENPERE Andoni Ollokiegi

Apirilaren 15ean, 21:00etan.

#### LEKARÓZ Baztan Kantuz

Plazan, apirilaren 16an,  
12:00etan.

#### BERA Amorante

Kataku, apirilaren 16an,  
12:00etan.

### PROIEKZIOAK

#### BERA 'Bideak' dokumentala

Ondotik Aritz Ganboaren solasaldia.  
Kultur etxean, apirilaren 15ean  
21:00etan.

#### LEITZA Zinema

Herri Aretoan, apirilaren 15ean  
eta 16an. 16:30ean 'Momiak'  
eta 19:00etan 'To Leslie'.

#### LESACA Haurrentzako zinema

Harriondoan, apirilaren 16an,  
17:00etan.

### IKUSKIZUNAK

#### LEITZA 'Creepy crawly' dantza ikuskizuna

Led Silhouette taldearen eskutik.  
Herri Aretoan, apirilaren 10ean,  
19:00etan.

#### SENPERE Arnaud Demancheren umorezko ikusgarria

Larrekon, apirilaren 14an,  
20:30ean.

'So Egin' dantza ikuskizuna  
Zarena Zarela taldearen  
eskutik.  
Apirilaren 15ean, 20:00etan.

### SOLASALDIAK

#### SENPERE Pazkoko arroltze tailerra

Errepirako parkean, apirilaren  
8an egun guzian. 11:00etan  
arroltze xerkatzea.

#### ELIZONDO Komiki eta nobela grafikoen taldea

Liburutegian, apirilaren 17an,  
19:00etan.

#### 'Irakurbide feministak euskal literaturan'

Iratxe Retolazarekin.  
Liburutegian, apirilaren 19an,  
18:00etan.

#### LEITZA Idazketa tailerra

Yolanda Arrietarekin.  
Liburutegian, apirilaren 19an,  
18:30ean.

LESACA  
Ipuin kontalaria  
Liburutegian, apirilaren 20an.

### AZOKAK

#### ELIZONDO Artisau eta nekazarien azoka

Plazan, apirilaren 7an, 8an,  
15ean, 22an eta 29an, goizez.

#### BERA Bertako ekoizleen merkatua

Beralandetan, apirilaren 8an,  
10:30etik 13:30era.

### ERAKUSKETAK

#### BERA Harri-hari erakusketa

Labiaga ikastolako areto  
nagusian, larunbat eta  
igandetan 16:00etatik  
20:00etara.

#### SARA Larrungo Koloreak taldearen erakusketa

Denen Etxean, apirilaren 8tik  
10era.

#### Eskuen Lana taldearen erakusketa

Lur Berrin, apirilaren 8tik 10era,  
10:00etatik 18:00etara.

### BERTZELAKOAK

#### LESACA Bertso saioa

Nerea Ibarzabal eta Unai  
Iturriagarekin.  
Arranon, apirilaren 15ean,  
21:00etan.

#### LEITZA IV. kantu bazkaria

Angel Mariezkurrena, Aitor Ibarra,  
Frantzisko Santxotena eta Beñat  
Mitxelenarekin.  
Erleta eskolako jangelan,  
apirilaren 15ean, 14:00etan.



# «Irteera bat antolatzeak prestakuntza haundia eskatzen du aitzinetik»

IBAI ITURRIA GARMENDIA AGERRA MENDI TALDEA



«Agerrako mendizale gaztea» da Ibai Iturria Garmendia. Kirola izan du betitik zaletasunik haundiena, «eta 2013az geroztik mendiarekin zerikusia duen jardueretan zentratu naiz gehiago». Gaur egun, Mendi Gidaritza ikasketak egiten ari da eta Agerra Mendi Taldearen antolakuntza jartzen du praktikan ikasitakoa.

## Agerra Mendi Taldearen hasiera

1992an sortu zuten Agerra Mendi Taldea, «auzoko ostatu baten itxieraren ondorioz». Izan ere, «ostatu hau desagertzeak hutsune bat sortu zuen auzotarren artean, eta gazte talde batek elkarte bat sortzeko ideia izan zuen. Hauek, mendiarekiko afizio haundia izanik, mendi talde bat sortzea erabaki zuten».

Geroztik, «hainbat mendi ateraldi antolatu dituzte urteotan. Esanguratsuenak Berako Mendi Eguna, Berako Mendi Itzulia, Taillon mendira egiten den irteera eta Bera-Goizueta mendi zeharkaldia dira».

Iturriak «mendian hasi nintzenetik» izan du lotura taldearekin, «bai mendian federatzeko, baita hauek antolatu dituzte jardueretan parte hartzeko ere». Gainera, «gaur egun, nire ikasketen praktikaldiari esker, taldean oraindik gehiago murgildu naiz».

## «IKASITAKOA PRAKTIKAN JARTZEKO BALIO DIT TALDEAK»

### Antolakuntza buru-belarri

Ikasitakoa martxan jartzeko helburuarekin sartu da taldearen antolakuntzara, «hau dela eta, urtariletik aitzine- ra egin diren mendi irteerak antolatu ditut eta horrela izanen da hurrengoetan ere».

Irteera bat antolatzeak «prestakuntza haundia eskatzen du aitzinetik; ibilbideak pentsatu, datuak bildu, bidea aztertu eta hasieratik bukatu egin, eguraldiaren aurreikuspena begiratu, kartelak prestatu eta herrian banatu, sare sozialetan informazioa zabaldu...».

Taldeak betitik «hagitz ongi funtzionatu duela» dio, eta «beti izan ditu ekimen finkoak». Hala ere, «nire praktikaldiarekin, ekimen hauetaz haratago bertzelako ateraldiak egin ditugu». Gainera, «irteera hauez gain, emanaldiak, tailerrak eta solasaldiak ere antolatuko ditugu».

### Jarduera ugari

Irteerak hilaetero antolatzen dituzte, «motzak zein luzeak. Adibidez, Bera-Goizueta zeharkaldiak 27 kilometro ditu eta 7 ordu behar izan genituen Goizuetara ailegatzeko». Ateraldiak hilaetero bukatu azken igandean egiten dituzte, «eta herritar guztiei irekiak daude denak».

Irteera hauen berri ematean, «ahalik eta informazio gehien zabalitzen dugu herritarren artean, norberak bere gaitasunak baloratu ditzan. Gure betebeharra mota guztietako ateraldiak egitea da; motzak, luzeak, haurrentzako...».

## «POZIK GAUDE ATERALDIEK IZAN DUTEN ERANTZUNAREKIN»

Hurrengo irteera pentsatzen hasiak dira dagoeneko: «apirileko azken asteburuan izanen da, oraindik ez daki- gu zehazki nora aterako garen, baina mendien izenen zerrenda hor daukagu». Aukeren artean, «Irubelakasko hagitz presente dugu, izan ere, aurtengo lehen irteera mendi honetara antolatua zegoen, baina mendiaren egoera eta mendizaleen segurtasuna bermatzeko bertan behera uztea erabaki genuen».

Talde polita elkartzen da irteeretan; «Ziburumendin 35 mendizale elkartu ginen eta Bera-Goizuetako mendi zeharkaldian 42. Momentuz, pozik gaude izan duten erantzunarekin eta bide beretik segitzea espero dugu».

Gainera, «ateraldiaren luzearen arabera otorduak egiten ditugu ondotik. Baina bazkaria egiteko aukera ez dagoenean ere, elkarrekin gosaltzeko leku bat bilatzen saiatzen gara beti».

### Ikasketak eta etorkizuna

Aipatu bezala, Iturria Mendi Gidaritza ikasketak egiten ari da Kirolene ikastetxean; «momentuz, Erdi Mailako mendi ikasketetan ari naiz (TD2). Orientazioa, kartografia, meteorologia, nivologia, lehen sorospenak... eman ditugu klasean, bertzeak bertze».

Hala ere, «TD2 ikasketekin bakarrik bizitzea hagitz zaila da» eta etorkizunera begira, «nire lana osatzeko zerbait izan nahiko nuke. Nire helburua udan irteerak antolatzeko izanen da, bezeroak Pirinioetara eramateko».

Azkenik, «eskerrak eman nahi dizkiot Agerra Mendi Taldeari praktika hauek egiteko aukera emateagatik eta irteeretan parte hartu duten guztiei».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

**LEITZA.** Pisua salgai, Uharte Gotzaia kaleko 6. zenbakian. Lehenbiziko solairuan eta altzariz hornitua. Igo-gailuarekin. Dena berritua eta isolatua. ☎696 37 88 84.

ERRENTAN EMATEKO

**LESAKA.** Herri sarreran pisu bat errentan emateko prest. Hiru logela, sukaldea egongela eta komuna. ☎670 42 37 70.



**LESAKA.** Logela alokairuan. Komuna, sukaldea eta baratzea erabiltzeko aukera. ☎646 67 51 70.

ERRENTAN HARTZEKO

**ELIZONDO.** Bikote bat pisu bila dabil. ☎624 09 14 80.

**BERA.** Bikote bat pisu bila. ☎638 72 56 83.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI



**ELIZONDO.** Akullegi karrikan 150 m<sup>2</sup>ko garajea salgai edo errentan emateko. Altura handia du eta zati batean tarteko solairua ere badu. Inguru lasaia eta eguzkitsua. ☎649 44 67 32.

ERRENTAN EMATEKO

**LESAKA.** Eltzetako plazan lurpeko aparkalekua errentan emateko. ☎629 48 06 24.

LANAK

ESKAINTZAK

**BERA.** Botxo ostatuan astelehenetik ortziralerara lanaldi osoan aritzeko sukaldari laguntzaile bat behar dute. Interestuak deitu. ☎617 72 34 75 .

**ARITZU.** Behi granja batean lan egiteko pertsona bat behar dute. ☎630 98 42 45.

**ASTIGARRRAGA-OIARTZUN.** Lize-lan-en baso lanetarako langilea bila. Zuhaitzak moztu edo kimatu, eta sasiak garbitu, linea elektrikoan mantentze

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

lanak. Bezeroarekin lanen jarraipena. Lan gehienak Lapurdin eta Landetan mugatik 150 km baino guttiagora. Frantsesa jakitea beharrezkoa. Lan baldintza eta lansari interesgarriak. Kontratu mugagabea. Erregimen orokorra. ☎677 33 34 51. Edo idatzi: [tecnico@lizelan.com](mailto:tecnico@lizelan.com) (gaztelera).

**ELIZONDO.** Esarte harategiko obra-dorean langilea behar dute haragiarekin lan egiteko. Ikasteko gogoa duena. Gida baimena edukitzea kontuan hartuko da. ☎948 58 01 28 (Javier) edo 948 58 19 07 (Pili).

**IGANTZI.** Irrisarri Landen gaueko atezaina eta mantentze lanetarako langilea behar dute, 40 ordu astean, 2 gau 00:00etatik 08:00etara eta 3 egun 8 orduko txandetan 08:00etatik 00:00etara. Bidali curriculumuma [rrhh@irrisarriand.com](mailto:rrhh@irrisarriand.com) helbidera.

**IGANTZI.** Irrisarri Landen mantentze lanetarako langilea behar dute, 40 ordu astean, 5 egun 8 orduko txandetan, 08:00etatik 00:00etara. Bidali curriculumuma [rrhh@irrisarriand.com](mailto:rrhh@irrisarriand.com) helbidera.

**IGANTZI.** Irrisarri Landen zerbitzaria behar dute, 32 ordu astean, 8 orduko txandak jarraian 08:00etatik 00:00etara bitarte. Bidali curriculumuma [rrhh@irrisarriand.com](mailto:rrhh@irrisarriand.com) helbidera.

**IBARDIN.** Fruta dendan eta harategian aritzeko pertsona bat behar dute. Astean 40 orduko lanaldia. Frantsesa jakitea eta autoa izatea beharrezkoak. Bidali curriculumuma: [beolaetxea@gmail.com](mailto:beolaetxea@gmail.com).

**IBARDIN.** Bentan batean kutxazain aritzeko pertsona bat behar dute. 40 orduko lanaldia astean. Frantsesa jakitea eta autoa izatea beharrez-

koak. Bidali curriculumuma: [beolaetxea@gmail.com](mailto:beolaetxea@gmail.com).

**IBARDIN.** Mendiko jatetxean sukaldean lan egiteko langile bat behar dute. Langilea eta ikasteko gogoz dagoena. Bi asteburu segidan lan eginda, hurrengo asteburu bat libre. Hilabetean 22 lanegun. Eguerdiko zerbitzuan aritzeko bakarrik. Interesatuz gero, Ibardingo Mendiko jate-xtera hurbildu.

DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

Egoera onean dagoen logela bat salgai. 2 ohe, mesanotxea, armarua eta komoda bat bere ispiuluarekin. ☎659 76 43 75 (Deitu arratsalde).

GALDU-AURKITUAK

**LESAKA.** Bereau Hotelaren inguruan, zubi parean, trenbidean, gilitza bat aurkitu dute. Berako Zelaia-eta stankoan dago.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



**SUNBILLA.** 9 hilabeteko artzain zakur alemana oparitzeko. ☎686 38 11 47.



**DONEZTEBE.** Bi zakurkume oparitzeko. Border Collie arrazakoak. ☎609 48 60 52.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,34 €
- 1.koa 5,22 €
- 2.koa 4,79 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,45 €
- 1.koa 5,31 €
- 2.koa 5,03 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 150,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00 €
- Idixkoak 140,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,30/5,40 €
- Zaldi-behorrak 4,92/5,22 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,80/8,90 €
- 8-10 kilokoak: 6,90/7,60 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 114 €

Zerri gizona 2,015 €

Zerramak 1,350€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua martxoaren 17tik 24ra bitarteko prezioak)




URTEBETETZEAK



Border collie arrazako bi zakurkume oparitzeko, euskal artzainarekin nahastuak. Hiru hilabete dituzte. Txertatuak. ☎629 32 77 83

SALGAI



Siberiar husky zakur arra salgai. Arraza garbiaren ziurtagiria, osasun txartela eta pasaporte dauka. Prezio negoziagarria. Interesatuak WhatsApp bidali. ☎646 50 62 49.

MOTORRAK

TAILERRAK

**RENAULT CLIO TECHNO**  
**TCE 90 CV**  
**ESTREINATU GABE**  
**KILOMETRO 0**

**Aukera bikaina!**

[www.talleressantesteban.com](http://www.talleressantesteban.com)  
DOMEZTEBE - T. 948 450 282  
[info@talleressantesteban.com](mailto:info@talleressantesteban.com)

744 484 361  
**ttipi-ttapa**



Lesakako **Kemen eta Irati Telletxea Bertiz** anai-arrebek martxoaren 11n eta apirilaren 1ean 6 eta 3 urte bete dituzte. Aunitz urtez Igantziko familiaren partez!



**Eñaut eta Egoi Bidart Zabaletak** 11 eta 14 urte bete dituzte!!! Etxekoen partez, jarrai dezazuela orain arte bezala bikote!!!



Leitzako **Peio Zabaleta Mariezkurrenak** 2 urte beteko ditu apirilaren 17an. Zorionak pottolo!!! Muxu haundi bat familia guziaren partetik!!



Narbarteko **Iraia Martin Argainek** martxoaren 24an 11 urte bete ditu eta amatxi Kontzik apirilaren 8an 73 urte beteko ditu. Zorionak eta aunitz urtez bie familia guziaren partez, baina bereziki Juneren partez!



**Mattin eta Manex Goñi Errandoneak** urteak bete dituzte martxoaren 29an eta 30ean. Zorionak eta muxu haundi bana familia guziaren partetik.



Arantzako **Aiert Baleztena Goñik** 8 urte bete ditu apirilaren 4an. Zorionak familia guziaren partetik.



Aurtizko **Beñat Elizondo Ariztegik** 11 urte bete ditu martxoaren 22an. Zorionak eta muxu potolo bat Beintza-Labaiengo eta Aurtizko familiaren partez!



Sunbillako **Malen Oskoz Apeztegiak** 3 urte bete ditu apirilaren 1ean. Zorionak gure etxeko printzesari atta, ama eta Nairaren partez!

SORTZEAK

- **Xan Lasaga**, Sarakoa, martxoaren 6an.

**Jatetxe eta ostatuak**  
Menuak, kartak, faktura orriak, talonarioak, mahai-oihalak...

## HILBERRIAK

- **Petra Cortes Rebollo**, Leitzakoa, martxoaren 15ean, 88 urte zituela.
- **Martin Dendarieta Ariztizabal**, Elizondokoa, martxoaren 17an, 85 urte zituela.
- **Joakin Igarzabal Telletxea**, Lesakakoa, martxoaren 18an, 90 urte zituela.
- **Mª Cruz Zapiain Sarasola**, Arizkungoa, martxoaren 18an.
- **Ramon Jauregi Sanzberro**, Almandozkoa, martxoaren 18an, 80 urte zituela.
- **Mª Rosario Elizagoien Berrueta**, Etxalarkoa, martxoaren 19an.
- **Francisco Ibarra Galarregi**, Sunbillakoa, martxoaren 22an, 65 urte zituela.
- **Israel Henrique Ferreira Limau**, Elizondokoa, martxoaren 22an, 68 urte zituela.
- **Miguel Anzizar Arrupea**, Doneztebekoa, martxoaren 23an, 85 urte zituela.
- **Iciar Mendia Raso**, Lesakakoa, martxoaren 23an, 71 urte zituela.
- **Francisca Etxarte Tapia**, Berakoa, martxoaren 23an, 94 urte zituela.
- **Mikela Juanikotena Mortalena**, Arraiozkoa, martxoaren 24an, 92 urte zituela.
- **Mª Sagrario Etxandi Uterga**, Oronoz-Mugairikoa, martxoaren 27an.



**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOARI  
ARABIA ETXERAKO

Gure larra,  
gure jendea,  
gure sustraiak

24 h Eskuatu surretan kontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)



**TANATORIOAK**

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI



**BAZAN BIDASOA**  
Herriko Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: BERA n San Jose Beilatokian  
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3  
web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU 365 EGUN** | **948 48 95 50**  
info@funerariabaztanbidasoa.com

*Betiko taldea zu laguntzeko*



**OROIGARRIAK**



- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira

**KULTURKARI**  
Disenatu grafikoa | Publizitatea

Info +:  
Tel: 948 63 54 58  
kulturkari@tupi.eus  
[www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

**24** | **948 63 74 04 / 948 19 70 70**  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



## KONTATU KONTUAK



BAZTAN-BIDASOKO ERNAI

**'Baztan-Bidasotik ari gara' jardunaldia Donamarian.**

Baztan-Bidasoko Ernai gazte antolakundeak antolatuta, landa eremuaren etorkizunaren aldeko jardunaldia egin zuten martxoaren 25ean Donamarian. Pilota partidak, mahai ingurua Gotzone Sestorain, Joseba Otondo eta Tasio Erkiziarekin, bazkaria eta bazkalondoko bertso ikuskizuna, musika... Giro ederra izan zuten.



MANTTALE MENDI LASTERKETA TALDEA

**25 kilo kristal bildu dituzte Larhunen.** Berako Mendi Maratoi Erdia baino aste batzuk lehenago ateraldia egiten du Manttale Mendi Lasterketa Taldeak, Zizkuitzetik Larhunera doan ibilbideko kristalak eta kableak garbitzeko. Aurten ere halaxe egin du. Martxoaren 25eko arratsaldean joan ziren eta kristalen, kableen eta zaborren artean 25 kilo bildu zituzten harkaitzetan goiti igotzeko bidean. Gisa honetara, maratoi erdiko parte hartzaileek kristalekin zauriak egitea saihestu nahi izaten du Manttale Mendi Lasterketa Taldeak, aunitzek eskuak lurrean paratzen baitituzte maldan goiti joateko. Gaineratu duenez, «uste dugu kristalak eta kable zatiak aspalditik lurrean sartuta daudela».



NAFARROAKO GOBERNUA

**Karlos III.aren Gurutzea Iñaki Perurenari.** «Herri kirolak mantentzeko eta zabaltzeko egindako lanagatik, baita Peru-Harri museoan eta beste zenbait jardura profesionaletan islatzen den euskal kulturaren zabalpenagatik», Karlos III.enaren Gurutzea eman dio Nafarroako Gobernuak Iñaki Perurena Gartziaarena leitzarrari. Ekitaldia martxoaren 27an Iruñean egin zuten eta Maria Txibite Nafarroako lehendakariaren eskutik hartu zuen.



JAIME BIGURIA

**Elizondoko Koro Ttikiren eta Doneztebeko Mendi Ttikiren kontzertua.** Martxoaren 26an Doneztebeko elizan bildu ziren gozamenerako, Elizondoko Koro Ttikik eta Doneztebeko Mendi Ttiki abesbatzak kontzertu ederra eman zuten.



**Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko pausoak ematen hasi dira Beran.** Goienerekin antolatuta, faktura elektrikoa leitzen ikasteko ikastaroa egin zuten Beran martxoaren 16an, eta horri segida emanez, martxoaren 30ean Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko bilera irekia egitekoa zuten Beralandetan.



**ZORIONAK!**  
**XUBAN UGALDE PIKABEA!**  
 826. aleko irabazlea zara!

# PLAZAN BAZAN

## HANDIENETIK TXIKIENERA



Lagundu bikote honi bere liburuak apalean ordenatzen. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienera 9. Bide batez, beheko irudia margotu.



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aizuri)

## Plazan bazan egiteak **SARIA BADU!**

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin apirilak 11a baino lehenago,  
 Ttipi-Ttapako Whatsapera: (0034) 774 48 43 61  
 zure izen abizenak jarrita.  
 Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!



Loguntzailea:

ibaizabal





**IRUDI ENGAINAGARRIAK**

Hamar txatal hauen artetik erdiak  
(5) irudi nagusitik hartuta daude eta  
beste erdiak ez. Bereiz itzazu



## SUDOKUA

**Liburuetan HITZAK**  
aurkitzen dira, ezta?  
Bete hutsuneak hitz hori  
osatzen duten hizkiak  
(H, I, T, Z, A eta K) toki  
egokian jarritz. Gogoratu  
hizki bakoitzak behin  
agertu behar duela  
zutabe, lerro eta area  
bakoitzeko.



## INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)



**Ttípi Txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSU-TRUK  
-%80 ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koordinatzailea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipi.eus/ttípi-txartela

**826** zenbakiko irabazleak >



**ZOZKETAK**

**Donostiako Aquariuma - Bi sarrera**  
Teresa Martikorena Irigoien | ETXALAR

**Onddo ta punto - Kamiseta bat**  
Antonio Etxaide Elorga | URDAZUBI

**Ez kexa - Kamiseta bat**  
Amaia Juanikorena Santesteban | ZUBIETA

**BKZ Abentura - Sarrera bat**  
Jabier Ariztia Iriarte | OROÑOZ-MUGAIRI

**Lesakako kiroldegia - Bi sarrera**  
Ainhoa Altuna Bergara | ARANTZA

**Mendukilo - Bi sarrera**  
Florentino Irigoien Igoa | ZIGA

**Mugarki - Sarrera bikoitza**  
M<sup>a</sup> Jesus Ganboa Zabalo | DONEZTEBE

**Anikote - Sarrera bikoitza igerilekurako**  
Maite Perurena Zubitur | LEITZA

**Ibaizabal - Hiru liburu**  
Korpus Urroz Mutuberria | IRUÑEA

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
www.aquariumss.com



Bi sarrera

**BUATXABAL**  
www.buatxabal.com



Poltsa bat

**ZUGARRAMURDIKO LEZEAK**  
www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

**IRRISARRI LAND**  
www.irisariland.com



Sarrera bat

**ELIZONDO**  
www.giltsaurdi.eus



Bi sarrera

**LA RHUNE**  
www.rhune.com



Sarrera bat

**FANTXIKE**  
www.fantxiike.eus



Pijama bat

**EDR GUNEA**  
Elbarren 47, behe - Leitza



Lote bat

**Sartu**

ttipi.eus/ttípi-txartela

webgunean  
eta ikusi  
abantaila guztiak!

DESKONTUAK  
ZOZKETAK  
ELKARRIZKETAK  
LAGUNTZAILEAK  
ARLOTAILEAK



Aprobetxa itzazu Ttípi Txartelak  
eskaintzen dizkizun  
abantailak, Ttípi Txartela  
onartzen duten denda eta  
zerbitzuetan erosiz.

**MUSIKA**

Hiru CD



Deskontuak eta zozketa: Ttípi-Ttapa aldizkari  
guztietan Ttípi Txartelaren informazioa argitaratzen  
da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun  
deskontuak oroitaraziz!



www.maukamusik.com/eu/